# URIBE KOSTA MANKOMUNITATEAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUEN AURREAN JARDUTEKO ETA KOORDINATZEKO PROTOKOLOA (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko Udalak)

**Izenburua:** Uribe Kosta Mankomunitatean izandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuen aurrean jarduteko eta koordinatzeko protokoloa.

**Edizioa:** Uribe Kostako Mankomunitatea.

**Lantaldea:** EDE Fundazioa

**Data:** 2022ko iraila

# Edukia

Edukia ... 4

1. Sarrera ... 5
2. Sinatu duten eragileak ... 6
3. Adostasunak eta konpromisoak ... 7
4. Lege-esparrua: nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta udalerrikoa ... 9
5. Kontzeptuen eta terminologiaren esparrua ... 12
6. Helburu orokorra eta zehatzak ... 14
7. Jarduketa eta koordinazioa gidatzen duten printzipioak ... 16
8. Kasuak detektatzea ... 19
9. Uribe Kostan indarkeria matxistari emateko erantzuna ... 20
   - Arlo sozialean jardutea ... 23
   - Jarduketa osasun-arloan ... 29
   - Poliziaren jarduketa ... 36
   - Berdintasun Zerbitzuaren Jarduketa ... 46
   - Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua ... 47
10. Erakundeen arteko koordinazioa ... 50
    - Koordinazio Teknikoko Batzordea ... 50
    - Koordinazio Estrategikoko Batzordea ... 51
    - Lankidetzak ... 53
    - Koordinazio Bereziko Batzordea ... 54
11. Jarraipena eta ebaluazioa ... 54
12. Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua: kontuak ematea, jarraipena eta ebaluazioa ... 55
13. Berrikuspena eta indarraldia ... 55
14. Datuen babesa ... 55

I. eranskina. Erakundeen erantzun publikoaren prozedura ... 57

- Noiz aktibatzen da prozedura? ... 58
- Prozedura ... 59
- Neska gazteen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako prentsa-oharraren eredua ... 61
- Emakumeen aurkako sexu-eraso edo eraso fisikoari erantzuteko erakundeen adierazpenaren eredua ... 63

II. eranskina: ofiziozko-epaitegira igortzeko eredua (osasun-arloa) ... 64

III. eranskina: lesioen mediku-partearen eredua ... 65

IV. eranskina: epaitegira igorritako ofizio-eredua (gizarte-zerbitzuen arloa) ... 68

V. eranskina: gizarte-zerbitzuek informazioa jasotzeko eredua ... 69

VI. eranskina: sexu-indarkeriaren inguruko informazioa jasotzeko eredua (gizarte-zerbitzuak) ... 77

VII. eranskina: indarkeria matxistaren erailketen aurrean jarduteko prozedura ... 86

# 1. Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeria matxista **Giza Eskubideen urraketa** da eta haien eskubideak eta funtsezko askatasunak gauzatzeko oztopoa da. Emakumeen aurka gauzatzen da, emakume izate hutsagatik. Askotariko formak ditu eta emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten du. Ondorioz, giza eskubideen urraketa onartezina da, eta lehen lerroko arazo soziala eta osasun-arazoa. Botere publikoek emakumeentzako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko jardun behar dute.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista emakumeen aurka erabiltzen da, sexuaren eta generoaren arabera **desberdin egituratuta dagoen sisteman** emakume izate hutsagatik. Indarkeria honek emakumeak eta “femeninotzat” hartzen den oro menderakuntza egoeran kokatzen ditu gizonekiko eta “maskulinotzat” hartzen den horrekiko. Indarkeria desberdintasunaren adierazle izateaz gain, desberdintasun hori erreproduzitzeko eta betikotzeko **kontrol sozialerako tresna** da.

Indarkeria hori adin, talde sozial, kultura eta herrialde guztietan gauzatzen da eta tamaina izugarria duen arazo soziala da, gure biztanleriaren intzidentzia handia baitu, ondorio fisiko eta psikiko larriak sortzen baititu, eta gizarte osoarentzat kostu sozial eta ekonomiko altua baitu.

Indarkeria-mota horren biktimak eta biziraun dutenak egoera bereziki ahulean daude, indarkeria mota horren izaeragatik, bai eta indarkeria horren kausen eta ondorioen izaera multidimentsionalagatik ere. Horregatik, funtsezkoa da erakundeen esku-hartze koordinatua artikulatzea, diziplina anitzekoa, eta genero-ikuspegia duena, prebentzioa, hautematea, babesa, arreta osoa eta osatzea bermatzeko, osasunaren, gizartearen, justiziaren eta poliziaren aldetik.

Hori guztia dela eta, **Uribe Kostako Mankomunitateak** emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta Mankomunitateko emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizitzeko neurriak sustatu eta ezarri ditu 2006tik.

2006an sortu ziren mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua eta Emakumeek Parte Hartzerako Kontseilua. Azken hori funtsezko eragilea izan zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana sustatzeko, eta, zehazki, 2010ean Uribe Kosta Mankomunitatean indarkeriaren biktima izan diren emakumeen arreta hobetzeko I. koordinazio-protokoloa deiturikoa egin eta sinatzeko. Ordutik, etengabeko bilakaera izan du lan-tresna horrek.

**2019-2023 Uribe Kostako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana**ren barruan, mankomunitateak lehentasunezko helburu hauek zehaztu zituen: emakumeen aurkako indarkeriaren hautemate goiztiarra areagotzea, arreta osoa bermatzea emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei, ahalduntzea oinarri hartuta eta esku-hartzea nazioarteko estandarretara egokituz. Horretarako, beste hainbat jarduketarekin batera, beharrezkoa da egungo protokoloa indarkeriaren arloko araudira egokitzea . Protokolo berri hau mankomunitateak ezarri zituen helburu eta jarduketei erantzuteko Berdintasun Zerbitzuak aktibatu zuen prozesuaren emaitza da.

Protokoloa ezartzeko beharrezkoa da sinatu ez duten eragileak izan arren (indarkeria-kasuetan zuzenean esku hartzen ez dutelako) indarkeria jasaten duten emakumeen hautemate goiztiarrean, prebentzioan, sentsibilizazioan edo ahalduntzean zeregin adierazgarria duten eragileekin ere bat egitea. Askotariko eragileen arteko lankidetzak aukera ematen du berdintasun-politiketan erabateko ikuspegi osoa izateko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.

## 2. Sinatu duten eragileak

Josu Mirena Landaluze Zarandona

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARITZA

Roberto Muñoz García

BARRIKAKO ALKATETZA

María Isabel Landa Gaubeka

BERANGOKO ALKATETZA

Nagore Utxupi Larrazabal

GORLIZKO ALKATETZA

Iñaki Alonso Martín

LEMOIZKO ALKATETZA

Elixabete Uribarri Uriarte

PLENTZIAKO ALKATETZA

Josu Mirena Landaluze Zarandona

SOPELAKO ALKATETZA

Javier Bilbao Lopategui

URDULIZKO ALKATETZA

Maria Teresa Gurrea Garcia

URIBE KOSTAKO EMAKUMEEN KONTSEILUKO BURUTZA

Javier Oscar Fernández Cucó

GETXOKO ERTZAINETXEKO UNITATEKO BURUTZA

Jesús Manuel Suárez Romay

URIBE ESIko ZUZENDARITZA

## 3. Adostasunak eta konpromisoak

Protokoloa sinatu duten eragileek honakoa adostu eta konpromisoa hartu dute:

**Lehenengoa**. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen hautemate goiztiarrean, ikerketan, prebentzioan, arretan, babesean eta osatzean, haur eta nerabeenean barne, esku hartzen duten erakundeen arteko **koordinazio hobea** lortzea, ematen zaien arreta hobetzeko eta indarkeriarik gabeko bizitza-proiektua hasi ahal izateko. Horretarako, jarduteko jarraibide homogeneoak ezarri dituzte mankomunitateko zazpi udalerrientzat, batez ere arlo sozialean, osasunean eta poliziari dagokionez.

**Bigarrena**. Esku hartzen duten eragileen jarduketa protokolo honetan ezarritako printzipio eta konpromisoetara **egokitzea**, esku hartzen duten eragileek beraiek zehaztutako jarraibideetatik abiatuta, bakoitzaren eskumenak errespetatuz eta egiten duten esku hartzearekiko erabateko errespetua izanez.

**Hirugarrena**. Protokoloa hedatu, ezarri, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko **baliabide materialak, giza baliabideak eta teknikoak** bideratzea eta protokoloak indarrean jarraitzen duen bitartean mahai eta sektore desberdinetan egiten diren bilera eta prestakuntzetan **parte hartzea.**

**Laugarrena.** Protokoloaren **edukiak zabaltzea** sinatu duen alde bakoitza osatzen duten edo atxikita dauden eta indarkeria jasaten duten pertsonen arretan jarduten duten profesionalen artean. Horretarako, kasu bakoitzerako egokiak diren bitartekoak erabiliko dira: protokoloa bidaltzea, jarraibideak, zirkularrak, esku-orriak, bilerak, etab.

**Bosgarrena**. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko trebakuntza eta **prestakuntza** irmoa eta espezializatua eta/edo generoaren prestakuntza bermatzea protokoloa sinatu duen erakunde bakoitzeko profesionalentzat.

**Seigarrena**. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza bermatzea eta protokolo honen helburuak lortzeko beharrezko **koordinaziorako eta elkarlanerako** tresna guztiak garatzea. Horretarako, lankidetzan arituko dira udalerriko egoera hobeto ezagutu ahal izateko estatistikak egiteko datuak biltzeko, betiere datuen babeserako indarrean dagoen legediaren barruan, bai eta protokolo honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ere.

Halaber, arreta jarriko zaie emakumeen arretan eta eskubideen defentsan espezializatuta dauden gizarte zibileko zerbitzu publikoei eta erakundeei eta, zehazki, askotariko diskriminazioa dela eta zaurgarritasun-egoera handiagoa duten emakumeekin jarduten dutenei. Hautematean, prebentzioan, sentsibilizazioan edo ahalduntzean lan egiten duten eragileekin harremana sustatzeak arreta osoa bermatzen du, indarkeria egoeretan esku hartzeko udal zirkuituetatik harago.

**Zazpigarrena.** Emakumeen aurkako adierazpen zuzenen, kulturalen eta sinbolikoen aurrean **arbuio soziala eta erakundeena** handitzea, bai eta desberdintasunetatik eta bidegabekerietatik eratorritako egiturazko indarkeria sistematikoaren aurrean ere. Indarkeriaren arretarako eta koordinaziorako protokoloan **erantzun publikoa emateko prozedura** sartzea.

**Zortzigarrena**. Pairatzen duten indarkeriaren ondorioz emakumeek jasaten dituzten **kalteen erreparazioa** sustatzea eta **ahalduntzeko** haien prozesu indibidualak eta kolektiboak indartzea, baliabide eta zerbitzu nahikoak, irisgarriak eta kalitatezkoak eskainiz. **Erreparazioa** funtsezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeen osatze-prozesuan eta lehengoratzea, indemnizazioa, errehabilitazioa, gogobetetzea eta ez

errepikatzeko bermea barne hartu behar ditu.

**Bederatzigarrena -** Protokolo hau 2022-2027 aldian egongo da indarrean. **Urtetik urtera luzatuko da**, alderen bat aurka agertu ezean. Kasu horretan, edukia berrikusiko da. Indarraldia amaitu ostean, amaierako ebaluazioa egingo da, eta ondoren bost urterako luzatu ahal izango da. **Onartzen** den unetik izango du eragina eta hori onartzen dutela egiaztatzeko, protokoloa sinatu dute.

# 4. Lege-esparrua: nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta udalerrikoa

*Uribe Kostako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuen aurrean jarduteko eta koordinatzeko protokoloa* berdintasunaren, prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztearen arloko nazioarteko, Estatuko eta EAEko araudiaren postulatuen esparruan diseinatu dute.

**Nazioartean** 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu ostean, tresna zehatzak garatu dira emakumeen eskubideak giza eskubide gisa finkatzeko. Alde horretatik, emakumeen eskubide politikei buruzko Konbentziotik (1952an onartu zen) mugarri handiak izan dira berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako legediaren garapenean, esaterako; emakumearen aurkako diskriminazio-mota guztiak desagerrarazteko konbentzioa (**CEDAW**) 1979an eta bere protokolo fakultatiboa (1999); edo Emakumeari buruzko Munduko Konferentziak. 1995ean **Beijingen** egin zen eta berdintasunerako nazioarteko agendan inflexio-puntua ezarri zuen.

Protokoloa eguneratzea sustatzeko eta diseinatzeko ezinbesteko erreferentzia izan da *Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzekoa eta borrokatzekoa*, edo **Istanbuleko Hitzarmena** gisa ezagunagoa dena. Juridikoki loteslea da hitzarmena eta Espainiak 2014an onartu zuen. Legezko tresna hori Europan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko tresnarik indartsuenetakoa da.

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa gisa definitzen du, biktiman oinarritutako ikuspegia du, indarkeria prebenitzeko eta biktimak babesteko dago diseinatuta eta erantzukizuna erasotzailearengan jartzen du. Desberdintasunaren eta indarkeriaren arteko lotura ikusarazten du. Zehatz jorratzen ditu emakumeen aurkako indarkeria-motak eta delitutzat hartzen ditu indarkeria psikologikoa, jazarpena, indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria, genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, behartutako abortua, behartutako esterilizazioa, ohorearen aurkako krimenak eta sexu-jazarpena. Gainera, erreparaziorako eskubidea aitortzen du eta Erreparazioaren Printzipioa zeharka txertatzen du arreta-prozesu osoan.

**Estatuan** erreferentzia saihestezina da 1/*2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa,* ***genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa***. Dena den, ohartarazi behar da ezkontideengandik edo, elkarrekin bizi ala ez, harreman horren pareko afektibotasun-harremanarekin lotutako beste norbaitengandik indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeetara soilik mugatzen dela. Oso kontuan izan behar dira baita ere *35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa, eta 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.*

Hiru urteren ostean, *3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa onartu zen*. Testu hori ere gakoa da berdintasunerako, emakumeen eskubideentzat eta, ondorioz, indarkeria prebenitzeko.

Gainera, indarkeria matxistari buruzko lege zehatzak ez izan arren, **haur eta nerabeen arreta eta babeserako** ezinbestekoak dira berriki onartu dituzten ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena, eta uztailaren 28ko 26/2015 Legea, haur eta nerabeen babes-sistema aldatzen duena.

Sexu-askatasunaren arloan, **sexu-askatasunaren berme osoaren lege organikoaren aurreproiektua** tramitatzen ari dira egun estatuan. Lege horren xedea da sexu-askatasunerako eskubide osoa babestea, emakumeen eta haurren aurkako sexu-indarkeria guztien prebentzioaren eta deuseztapenaren bidez, horiek baitira sexu-indarkeriaren funtsezko biktimak. Hala, emakumeen segurtasuna eta haien sexualitatearen gainean erabakitzeko eskubidea, sexu-ongizaterako eskubidea eta sexu-osotasunerakoa eta sexu-harremanak norekin izan aukeratzeko eskubidea bermatzen dira.

Nabarmendu behar da lege organikoaren helburua sexu-indarkeriaren forma guztien prebentzioa eta erantzuna bermatzeko beharrezko neurri guztiak barne hartzen dituzten politika eraginkorrak, orokorrak eta eskumena duten Administrazio Publikoen artean koordinatutakoak praktikan jartzea dela.

**Euskadin**, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzarako 4/2005 Legea dago**. Legearen erreforma aho batez onartu du Euskadiko Legebiltzarrak 2022an; izan ere, emakumeek eta gizarte osoak berdintasunaren alde eta emakumeen indarkeriarekin amaitzeko zituzten eskariei erantzuteko prozesu sozial eta politikoaren emaitza izan da.

Legeak hau ezartzen du: “Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, ziurtatu behar dute hezkuntzaren, osasunaren, poliziaren, epaitegien, lanaren eta gizartearen arloko profesionalek modu proaktiboan eta koordinatuan jarduten dutela emakumeen aurkako indarkeria matxistaren esplizituak ez diren kasuak detektatzeko eta behar bezala bideratzeko. Horretarako protokoloak egin eta aplikatu behar dituzte, protokoloak esku hartzen duten eragileen artean egin behar dira, eta dagozkien adierazleak eta jarduteko jarraibideak izan behar dituzte”.

Eta zehazki, tokiko eremuari dagokionez, legeak honakoa xedatzen du: “Foru- eta toki-administrazioek beren lurralde-eremuan lankidetza-akordioak eta jarduketa-protokoloak hartzea sustatuko dute, aurreko bi paragrafoetan aipatutako akordioak eta protokoloak garatu, zehaztu eta bakoitzaren errealitatera egokitzeko. Horietan, inplikatutako arreta-sistema guztiek parte hartu behar dute, modu proaktiboan”.

Legearen babespean, egun, **etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakundeen arteko II. Hitzarmenak** *(*aurrerantzean, II. Hitzarmena) erkidego mailako printzipioak, jarraibideak eta akordioak jasotzen ditu, tokiko eremuan jarduteko protokoloak diseinatzeko eta koordinatzeko. Hitzarmen hori eguneratzeko prozesuan dago, Euskadiko berdintasun legeak indarkeriaren arloan egin izan duen erreformaren aldaketak betetzeko.

**Tokiko protokoloak** hainbat erakundek emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean ematen duten erantzuna adostu, antolatu eta deskribatzeko tresnak dira. Esku-hartze partekatuko eredua eta erreferentzia-esparru tekniko-metodologikoa zehazten laguntzen dute, udal-zerbitzuen barne-koordinaziorako, bai eta arlo horretan eskumena duten autonomia-erakundeen eta garatuko den udalerrien errealitate zehatzaren egokitzapenean oinarritutako beste erakunde batzuen barne-koordinaziorako ere.

Alde horretatik, **Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** “emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloen estaldura duten eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzan laguntzeko dituzten egoeretara egokituta dauden biztanleen kopurua handitzea” du xede.

Protokolo hau egiteko bereziki kontuan hartu dira inguruan izan diren araudi-aldaketak, eta egokitzeko prozesuan indarrean dagoen arauditik harago joan gara, egungo legezko testuinguruarekin, testuinguru pragmatikoarekin eta sozialarekin koherentea den tresna izateko. Alabaina, gogoan izan behar da esku

hartzen duten erakundeak  mugatzen dituen erakundeen arteko II. Hitzarmenak indarrean jarraitzen duela, eta arreta etxeko tratu txarretan eta sexu-erasoetan jartzen duela. Egoera hori kontuan izan behar da, baina horrek ez du indarkeria-kasuen aukera zabalagoari erantzutea ahalbidetzen duten formulak identifikatzea mugatu behar.

## 5. Kontzeptuen eta terminologiaren esparrua

Protokolo hau aktibatzeko, aurreko paragrafoan aipatutako legeriatik datozen indarkeriaren definizioak hartuko dira emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat: Istanbuleko Hitzarmena; *Genero Indarkeriaren kontra Osoki Babesteko Neurrien 1/2004 Lege Organikoa; Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 errege lege-dekretua; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa; eta ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.*

Martxoaren 3ko 1/2022 Legearen, Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren moldaketa egiten duenaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria matxista emakume izateagatik emakumeen aurka, haur eta nerabeak barne, eta emakume transexualen aurka gauzatzen den indarkeria da edo arlo publikoan eta pribatuan modu neurrigabean eragiten diena. Legeak bat egiten du arloan erreferentziakoak diren nazioarteko araudiarekin.

Indarkeria gauza daiteke ekintza bidez edo ez-egitearen bitartez, eta bitartekoak fisikoak, psikologikoak, edo ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderiak eta behartzeak barne; ondorio gisa mina, sufrimendua edo kalte fisiko, sexual, psikologiko, sozial, sozioekonomiko edo ondarearen kaltea sortzen dute.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxista** osatzen dute bikotean edo bikote ohian gertatzen den indarkeriak, familia barruko indarkeriak, sexu-indarkeriak, feminizidioak, emakume eta nesken salerosketak, sexu-esplotazioak, emakumeen genitalen mutilazioak, behartutako ezkontzek eta kaltegarriak diren beste praktika tradizional batzuek, behartzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak, torturak, indarkeria instituzionalak, jazarpenak, genero-indarkeria politikoak, indarkeria digitalak eta sare sozialetakoak, indarkeria obstretikoak, sexu-eskubideen eta ugaltzeko eskubideen urraketak, baita emakume eta nesken duintasuna, integritatea eta askatasuna kaltetzen duen edo kaltegarria izan daitekeen edozein indarkeria motak ere; nazioarteko hitzarmenetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo erkidegoko araudian jasotzen direnak. Hori guztia gertatzen den eremua edozein dela ere, publikoa zein pribatua; honako hauek barne (baina ez da mugatzen horietara soilik): familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola eta komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta online eremua".

Halaber, indarkeria matxista da emakumeari min emateko biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egindako indarkeria eta biktimaren inguru hurbilekoaren edo afektiboaren aurka gauzatutakoa, batez ere seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa.

Araudiaren arabera, genero-arrazoiengatik indarkeriazko jokabideak lehen pertsonan pairatzen dituzten emakume, nerabe eta haurrez gain, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren [1] biktima dira indarkeria hori gauzatzen den inguruan bizi diren emakumeak, haurrak, nerabeak eta beste mendeko pertsona batzuk, eta zaurgarritasun egoera dela-eta, indarkeriak zuzenean eragiten dietenak.

Nazioarteko estandarren eta *Apirilaren 27ko 4/2015 Legearen, delituaren biktimaren estatutuari* buruzkoaren arabera, biktima terminoa bere adierarik zabalenean erabiltzen da, hau da, delitu bat pairatu eta egoera egiaztatzeko erakundeekin kontaktua duen pertsona deskribatzeko. "Indarkeriatik bizirik atera den pertsona" edo "indarkeriari aurre egin diona" terminoak ere erabiltzen dira. Horiek ahalduntzea

---

1"Biktima" kontzeptuak indarkeriatik bizirik atera diren eta osatzeko prozesua egin duten pertsonak ere hartzen ditu, arlo horretako nazioarteko itunetan eta lege-testuetan jasotzen denaren arabera.

sustatzen dute eta emakumeek indarkeria-egoera gainditzeko prozesuetan duten rol aktiboa azpimarratzen dute.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista terminoak *Genero Indarkeriaren kontra Osoki Babesteko Neurrien 1/2004 Lege Organikoak* eta II. Hitzarmenak ezartzen duten lege-esparrua gainditzen du. Bi esparruak erakundeen arteko koordinaziotik sortu dira. Hala ere, aipatu dugun moduan, EAE azken urteetan legedian egiten ari diren aurrerapenetara egokitzeko eta trantsiziorako etapan dago. Beraz, protokolo hau dokumentu bizia da eta arlo horretan ematen diren aldaketen menpe dago. Sinatu duten eragileek beren gain hartu beharko dituzte nazioarteko, estatuko eta erkidegoko araudian jasota dauden eskubideak bermatzeko erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxista** emakumeen aurka egiten den indarkeria oro da, baita neskatoak eta nerabeak eta emakume transexualak ere, emakume izateagatik, edo eremu publikoan zein pribatuan neurriz kanpo eragiten diena.

**Indarkeria matxistaren erroan dago desberdintasuna.**

**Protokolo honek babestu behar dituen subjektuak** indarkeriak definitzen dituen espazioetan eta moduetan indarkeria matxista pairatzen duten edo pairatu duten **emakumeak** dira, bai eta hala badagokio emakume horren kargu dauden adingabeak ere.

Erakunde guztiek artatuko dituzte emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriaren forma eta espazio guztiak, haien eskumenen arabera, eta gainerako erakundeekin koordinatuko dira protokolo honen helburuak betetzeko.

## 6. Helburu orokorra eta zehatzak

Protokolo honen helburu orokorra erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza da, Uribe Kosta mankomunitatean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera diren pertsonak hautemateko eta haiek artatzeko, indarkeriarik gabeko bizi-proiektuak hasi ahal izateko arreta osoa, egokia, espezializatua eta kalitatezkoa, babesa eta erreparazioa bermatu ahal izateko.

Eskubide horiek emakume guztiei bermatu behar zaizkie, haien jatorria, egoera administratiboa, erlijioa edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial gorabehera.

Helburu zehatzak:

| | |
|---|---|
| ✓ **Jarduteko jarraibideak** | Uribe Kostako Mankomunitate osoarentzat jarduteko **jarraibide eta irizpide** homogeneoak ezartzea. |
| ✓ **Koordinazio etengabea eta egonkorra** | Sinatu duten erakunde guztien arteko **koordinazio etengabea eta egonkorra** sustatzea, arreta osoa eskaini ahal izateko informazioa sortu eta transmititzeko (legearen esparruan). |
| ✓ **Bigarren mailako biktimizazioa ekiditea** | Jardun profesionala ez da asistentzialista, paternalista, biktimista eta etnozentrikoa izan behar. izan ere, jarduketa desegokiak emakumeen kaltea eta zaurgarritasuna areagotzen ditu eta bigarren mailako biktimizazioa indartu. |
| ✓ **Kasuak hautematea eta ibilbidearen jarraipena egitea** | **Kasuak hautematea** eta arretarako baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen **ibilbideen jarraipena** egitea. |
| ✓ **Baliabideen sarea** | Prebentzioarekin, hautematearekin, arretarekin, babesarekin eta osatzearekin **konprometituta dauden baliabideen sare osoa** osatzea, bai eta horien eraginkortasuna hobetzea ere, emakumeak banaka eta kolektiboan ahalduntzeko ikuspegitik. |
| ✓ **Inpaktuari buruzko informazioa** | Udalerrietan dagoen indarkeriaren egoeraren **informazioa** biltzea, arretarako eta koordinaziorako politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko, indarkeriaren inpaktua nolakoa den ezagutzea ahalbidetzen duten adierazleen bidez. |
| ✓ **Partekatutako ikuspegiak** | Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan **printzipio, ikuspegi eta hizkera partekatuak** dituzten koordinatutako baliabideen sarea eratzea. |

| | |
|---|---|
| ✓ **Trebakuntza** | Protokoloa osatzen duten pertsonen **prestakuntza eta sentsibilizazioa** indartzea, hautemate, arreta, osatze eta arreta espezializatu osoa eta ahaldundua izateko. |
| ✓ **Komunikazioa beste eragile batzuekin** | **Komunikaziorako bideak** ezartzea protokoloaren parte ez diren, baina indarkeria jasaten duten emakumeak hautemateko, sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko lan garrantzitsua egiten duten eragileekin. |
| ✓ **Erreparazioaren printzipioa** | Indarkeria matxistaren biktima-biziraun dutenen **erreparaziorako printzipioa** aitortzea erreparaziorako ekintzen bidez, lehengoratze, indemnizazio, errehabilitazio, gogobetetze eta ez errepikatze bermearen printzipioei dagokienez. |
| ✓ **Erakundeen arbuio publikoa** | Erakundeek indarkeria matxistarekiko arbuio soziala eta tolerantziarik eza adierazteko **erakundeen erantzun publiko** egokirako jarraibideak bermatzea. |
| ✓ **Ahalduntzea** | Indarkeria matxista pairatzen duten edo pairatu duten emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiborako prozesuak indartzea. |
| ✓ **Etengabeko ebaluazioa** | Dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzea, parte hartzen duten erakunde eta jarduera-eremu guztiei **ebaluazio koordinatua eta etengabea** egiteko aukera emateko, baterako jarduera planteatutako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko. |

# 7. Jarduketa eta koordinazioa gidatzen duten printzipioak

Jarduketarako eta koordinaziorako protokoloan jasota dauden jarraibideak betetzeko, profesionalek eta erakundeek printzipio hauek jarraitu beharko dituzte:

1. **Indarkeriarik gabeko bizitzak**: Indarkeria pairatzen duen emakume batekin egiten den esku-hartzearen helburua harreman afektiboak indarkeriarik gabe bizi ahal izatea izan beharko da beti. Horretarako, garrantzitsua izango da berak, bere seme-alabek -baldin baditu- edo indarkeriak eragin dien inguruko beste pertsona batzuek bizitutako erasoen ondorio mingarrietatik osatzea.

2. **Prebentzio-jarduketa**: Edozein eraso gertatu aurretik garrantzitsua da informaziorako, prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako jarduketak egitea, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean tolerantziarik ezaren kontzientzia soziala sustatzeko helburuarekin.

3. **Berehala jardutea**: Indarkeria matxisten erantzunak berehalakoa eta irmoa izan behar du. Ez dago inolako azalpenik gertaera horiek justifikatzeko, eta, beraz, ez dago ez jarduteko arrazoirik. Ekintzarik ezak indarkeria pairatzen duten pertsonak berriro biktimizatzen ditu eta inpunitatea ematen die erasotzaileei.

4. **Laguntza osoa eta pertsonalizatua**. Indarkeria pairatu duten emakumeentzako eta bere kargu dauden pertsonentzako laguntzak indarkeria-egoeratik eratorritako beharrak jorratu beharko ditu, eta, horretarako, kasu bakoitzeko baldintza pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzu eta prestazioetarako sarbidea ahalbidetuko zaie. Esku-hartzea genero-ikuspegitik eta emakumeen ikuspegi orokor eta integraletik egingo da beti.

5. **Biktimari lehentasunezko arreta ematea.** Erasoren bat ikusi eta/edo jakinez gero, lehentasuna biktima izan behar da. Ziurtatu ondo dagoela eta arreta egokia jasotzen duela. Laguntza eskatzen duten emakumeen arreta da lehentasuna. Laguntza eskatzen duen zerbitzua bera dagoen tokira joan daiteke eta esku-hartze erraza egiteko baldintzak eskaini behar ditu uneoro.

6. **Eraginkortasuna eta azkartasuna.** Protokolo honetan jasotako jarraibideak ezartzerakoan, artikulazio eraginkorra eta azkarra bermatu beharko da, egoera horien berezko presak eskatzen duen berehalakotasunarekin jarduteko.

7. **Berdintasuna.** Arreta emakume guztiei eman behar zaie, egoera zibilarengatik, sexu-orientazioarengatik, genero-identitatearengatik, adinarengatik, sinesmenengatik edo ideologiarengatik, gutxiengo etnikoaren parte izateagatik, nazio edo hizkuntzagatik eta desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal eta sozialengatik inor diskriminatu gabe. Halaber, baldintza pertsonal eta sozialengatik laguntza osora iristeko zailtasun handiagoa duten emakumeekin beharrezko neurriak hartuko dira haien eskubideak bermatuta izan ditzaten, batez ere, desgaitasuna duten emakumeekin eta immigranteekin, haien egoera ekonomikoa edozein dela ere.

   Hainbat baldintzak indarkeria jasateko arriskua areagotzen dute eta eskubideetara, zerbitzuetara eta baliabideetara iristeko zailtasun handiagoak dakartzate, hala nola adinak, jatorriak, etniak, aniztasun funtzionalak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak, heziketa-mailak eta maila sozialak, drogen mendekotasunak, etab.

**Profesionalek emakumeen egoera eta behar zehatzetara egokitu behar dituzte esku-hartzeak**.

Zehazki, informaziora eta baliabideetara iristeko desgaitasuna duten emakumeen eskubidea bermatzeko, beharrezkoa den aldiro egokitzapenak egin beharko dira (garraiorako laguntzak, laguntzaileak, zeinu-hizkuntzarako interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.). Halaber, atzerriko emakumeek izan ditzaketen hizkuntzaren mugak eta kulturaren interpretazioarenak gainditu edo arintzeko neurriak hartuko dira. Emakume immigranteei gogorarazi beharko zaie erroldatua egotea garrantzitsua dela babes sozialerako sarearen oinarrizko prestazioetara iristeko eta immigranteentzako aholkularitza eta orientaziorako zerbitzu publikoarekin harremanetan jartzea gomendatuko zaie. Halaber, adineko emakumeak mendekotasun- edo zaurgarritasun-egoera handiagoan daude, eta hori are babesgabetasun handiagoa izan daiteke.

8. **Adingabeen interes gorena**. Jarduteko eta koordinatzeko protokoloa aplikatzerakoan, indarkeria matxistaren biktima izan diren haur eta nerabeak babesteko eta arreta eskaintzeko beharrezko neurriak hartuko dira, eta arreta berezia eskainiko zaio adingabe eta indarkeria matxistaren biktima izatearen baldintza bikoitzari.

   Halaber, haur eta nerabeen babes-sistema moldatzeko 8/2015 Legeak ezartzen duen moduan, adingabeak, genero-indarkeria egoeran dauden emakumeen seme-alabak eta tutoretzapean edo zaintzapean dauden beste adingabe batzuk ere indarkeria horren biktima gisa artatuko dira, eta haien eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatu ahal izateko, kasu guztietan haurraren eta nerabearen interes gorena aplikatuko da.

9. **Ahalduntzea eta normalizazioa.** Kasu bakoitzerako neurri egokiak artikulatzeko, emakumeen autonomia pertsonala eta bizi-eredu normalizatua ahalbidetu beharko dira. Horretarako, emakumeak egoera horiei aurre egiteko duen gaitasuna sustatuko da, balioa aitortu eta bere erabakiak hartzeko gaitasuna indartu.

   Genero-indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala pairatu duten emakume guztiak artatuko dira, salaketa jarri ala ez, haien egoera esplizituki adierazi eta biktima gisa aitortzen diren ala ez. Baliabideetara jo eta salaketarik ez jartzea ez da porrot edo laguntzari uko egite moduan ikusiko, baizik eta aintzat hartuko da autonomia maila jakin bat edo arretarako ibilbideari ekiteko segurtasun erlatiboa lortzeko aurretik laguntza behar duela.

10. **Berriro biktimizatzea ekiditea.** Indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahalik eta gehien ekiditea izango da xedea, eta, horretarako, ahalik eta gehien murriztuko dira esku-hartzeak egiten dituzten profesionaletatik eta erakundeetatik eratorritako eragozpenak. Halaber, emakumearentzat iraingarriak izan daitezkeen balio-iritziak edo jarduketak ekidin egingo dira.

11. **Erreparazioa.** Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa da, eta, ondorioz, biktimek-bizirik atera direnek erreparaziorako eskubidea dute, egia ezagutzeko eskubidea. Horrek esan nahi du biktimak-bizirik atera diren emakumeak artatzen dituzten zerbitzu publikoek maila guztietan jasandako mina artatzeko ekintzak jarri behar dituztela abian, eta indarkeriaren ondorioentzako arreta bermatzeko egin behar dutela lan; bestalde, giza eskubideak urratzea ahalbidetu duten baldintzak berriro ez errepikatzea bermatzeko neurriak ere ezarri behar dituzte.

12. **Informazio fidagarria.** Sentsazionalismoa eta alarma soziala ekidin behar dira, eta informazioa kontrastatzen duen jarrera arduratsuarengatik ordezkatu. Albiste faltsu bat ez da inoiz onuragarria ez biktimarentzat, ez erasotzailearentzat.

13. **Datuen babesa.** Sinatu duten erakunde guztiek jasotako datuak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera erabiliko dituzte.

14. **Autodeterminazioa.** Nahiz eta oso gogoan izan bizi izan duten errealitateak kalte psikologikoa eta konfiantza, autoestimu eta ekimen falta eragin diela. Hala ere, ezin dugu haien partez erabaki, haien aliatuak bihurtu behar dugu eta haien gaitasunak azpimarratu. Horretarako, informazioa, gure ezagutzak eta esperientziak eskaini behar dizkiegu, haien erabakiak hartzeko eta erabakiak hartzeko denbora errespetatu behar dugu.

Alde horretatik, Protokolo honetan aurreikusten diren arretarako jarraibideak eta ibilbideak betetzeko eta inplikatutako hainbat erakunde koordinatzeko iniziatiba profesionalena izan behar da, eta erantzukizuna ez da biktimen gain utzi behar.

## 8. Kasuak detektatzea

Protokolo honen arabera, emakumeen aurkako indarkeria-kasuak hautematea da biktimak indarkeriatzat hartzen ez dituenak edo esaten ez dituenak hautematea.

Kasu horietan erakundeek jarrera proaktiboa izan behar dute eta beharrezkoak diren laguntzarako eta jarraipena egiteko jarduketak aktibatu behar dituzte, biktima prest sentitzen denean baliabideetara jo eta profesionalengan konfiantza sortzen duten prozesuak sortzeko, loturak, ahalduntzea, indarkeriaren desnaturalizazioa eta laguntza formal eta informalerako baliabideak izateko.

Protokoloa sinatu duten erakunde eta elkarteek konpromisoa dute arreta goiztiarrerako haien jarduketak hobetzeko, eta haien langileen artean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazle goiztiarrak identifikatzen laguntzeko prestakuntza eta material informatiboa hedatzeko, baita biktimek dituzten eskubideen eta baliabideen inguruko informazioa eta beharrezkoa izanez gero informazio gehiago edo berehalako laguntza lortzeko bitartekoak dituzten beste material batzuk ere.

Jarraian aurkeztuko ditugun arloen arabera jarduteko jarraibideetan daude ezarrita emakumeen aurkako indarkeria matxista hauteman ondoren jarraitu beharreko urratsak.

# 9. Uribe Kostan indarkeria matxistari emateko erantzuna

Indarkeria matxistaren egoeretan sortzen diren askotariko beharrei erantzuteko, EAEk hainbat sistema eta erakundetatik eskaintzen diren zerbitzuen eta prestazioen sarea du.

Protokolo horiek Erakundeen Arteko II. Hitzarmenaren barruan kokatzen dira, eta indarkeria matxistaren aurrean esku hartzen duten sistema, erakunde eta eragile guztiak biltzen ditu.

Tokiko jarduera-eremua duen protokolo honen sinatzaileak Uribe Kostako Mankomunitateko lurraldean emakumeei, haurrei eta nerabeei, seme-alabei zuzeneko arreta eskaintzen dietenak dira. Hurrengo grafikoan ikus daitezke indarkeria matxistaren egoeretan esku hartzen duten eragile guztiak eta laranjaz ageri dira protokolo honetan zuzeneko konpromisoa dutenak.

**Erantzunean esku hartzen duten sistemak, erakundeak eta eragileak eta protokoloa sinatu dutenak nabarmenduta**




Eskumenen, funtzioen eta zereginen arabera, eragile bakoitzak bere prozedura espezifikoak ditu. Batzuetan aldi berean hartzen dute esku edo beste batzuetan jarduketa osagarriak kateatzen dituzte. Erantzun osoa emateko ezinbestekoa da prozedurak artikulatu eta koordinatzea. Jarraian, “in situ” egindako premiazko arretan egon daitezkeen beharren eta beharrei erantzuteko esku hartzen duten mankomunitateko eragileen inguruko eskema.




Eskema honetan premiazko jarduketa eskatzen duten prozesuetan indarkeria matxistaren biktimek eta bizirik atera diren pertsonek izan ditzaketen askotariko dimentsioak eta beharrak ikus daitezke. Halaber, aldi berean edo modu artikulatuan esku har dezaketen mankomunitateko eragileak ere ageri dira.


Actuación en situación de violencia machista
¿Qué tipo de necesidades?
Detección Precoz
OSI Uribe
Servicios Sociales de la Mancomunidad
Policía Municipal o Ertzaintzaetxea Getxo
Servicio de Igualdad de la Mancomunidad
Otros agentes colaboradores del protocolo (Consejo de Participación de las Mujeres, sistema educativo...)
Información sobre sus derechos y recursos
OSI Uribe
Servicios Sociales de la Mancomunidad
Policía Municipal o Ertzaintzaetxea Getxo
Colegio Abogacía Bizkaia
Orientación y acompañamiento
Apoyo socioeducativo y psicosocial
Servicios Sociales de la Mancomunidad
Apoyo psicológico especializado
Asesoramiento jurídico especializado
Servicios Sociales de la Mancomunidad coordinación con Servciios Forales
Alojamiento temporal
Servicios Sociales de la Mancomunidad coordinación con Servciios Forales
Protección y valoración del riesgo (denuncia, orden de protección...)
Policía Municipal o Ertzaintzaetxea Getxo
Atención sociosanitaria
OSI Uribe
Proceso Judicial
OSI Uribe
Servicios Sociales de la Mancomunidad coordinación con Servciios Forales
Policía Municipal o Ertzaintzaetxea Getxo
Colegio Abogacía Bizkaia

Haurrak eta nerabeak tartean daudenean, sistema guztietatik abiarazten diren jarduera eta prozedura guztietan kontuan hartu beharko dira beti haien eskubide espezifikoak:

Indarkeria matxistaren biktima haur edo nerabe bat baldin bada, jarduteko prozesuan Haurraren Interes Gorenak sartu beharko du, bai eta adingabe eta indarkeria matxistaren biktima izateagatik duen baldintza bikoitzaren barruan bere arreta eta babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurri zehatz guztiak ere.

Biktima emakume heldua bada eta bere guraso-ahalaren pean, tutoretzapean edo zaintzapean adingabeak baditu, horiek ere indarkeriaren biktima gisa artatuko dira, eta haien arreta eta babesa egokia izan dadin beharrezko neurri, ekintza eta baliabide guztiak erabiliko dira.

Edozein kasutan, adingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan sistematikoki errespetatu beharko da entzunak izateko eta haien iritziak kontuan hartzeko duten eskubidea; gainera, haien gaikuntza eta parte hartzea arretarako eta babeserako estrategien eta programen oinarrizko elementuak izan behar dira.

## Arlo sozialean jardutea

Gizarte Zerbitzuak *12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak* erregulatzen ditu. Araudiak ezartzen du udalak izango direla dagozkien eskumenak gauzatzeko ardura izango dutenak haien lurralde-esparruan, udal-zerbitzuen bidez. Horretarako, elkartu eta erakunde antolatzaileari esleitu ahal izango diote legeak ezartzen dizkien eskumenak gauzatzeko eskubidea, kasu honetan, Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateari.

Toki, foru eta erkidego mailan dauden zerbitzuak eta prestazioak, bestalde, *185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan* daude xehetasunez definituta.

Uribe Kostan, Mankomunitateak du Legean jasotzen diren Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemako (EGZS) oinarrizko zerbitzuak gauzatzeko funtzioa, Ongizate Sozialeko Sailaren bidez.

Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek jarduteko unitate polibalenteak eta diziplina anitzekoak eratzen dituzte. EGZSrako sarbidea dira eta, besteak beste, egoeraren diagnostikoa, balorazioa, laguntza, arreta soziala, eta hala badagokio beste zerbitzu batzuetara bideratzen laguntzen dute, izan mankomunitatekoetara, beste erakunde batzuetakoetara edo emakumeen aurkako indarkerian espezializatuta daudenetara.

Indarkeria matxistaren egoera jasaten ari diren emakumeei laguntzeko Mankomunitateak baliabide hauek ditu:

- Oinarrizko Zerbitzu Sozialak, sarbidea, zazpi udalerrietan.

- ARRETA Indarkeriaren Biktimentzako Harrera Sozialerako Zerbitzua, zazpi [2]udalerrietan.
- Esku-hartze soziohezitzailerako zerbitzuak
- Arreta psikosozialerako zerbitzua
- Aholkularitza juridikoa
- Ordainketa Bakarreko Laguntzaren Kudeaketa. Laguntzaren baldintza estatuko legediak arautzen ditu.

Indarkeriaren biktimentzako gizarte-zerbitzuetara **sartzeko bideak**:

- Zuzenean, emakumeak **haien ekimenez** edo beste zerbitzu batzuetatik **bideratuta** joaten dira Gizarte Zerbitzuetara.
    - Eskari **inplizitua**, hau da, emakumeak ez badu egoeraren berri ematen, baina indarkeria matxista jasaten ari dela hautematen bada.
    - Eskari **esplizitua**, hau da, indarkeria matxistaren egoera hitzez adieraziz eta laguntza eskatuz.

Uribe Kostako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) herritarren arreta aurretiazko telefono bidezko **hitzorduaren** bidez antolatzen dute: 94 676 26 74 eta 94 676 39 99.

Lesioek arreta behar badute edo bere osotasun fisikoa edo bere kargu dauden pertsonena arriskuan dagoela baloratzen bada, edo berehalako osasun-arreta behar badu, **ARRETA Zerbitzuaren** bidez egiten da, modu **premiazkoan**, hitzordurik ez izan arren, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara, Gatzarriñe kalea, 4, Sopela.  Arratsaldetako, gauetako edo asteburuetako larrialdietako ordutegia Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Foru Zerbitzuarena da[3]. Hala, EGZSk 24 orduko larrialdiak bermatzen ditu. Urteko 365 egunetan .

Indarkeria egoera dela-eta, baliteke **lehentasunezko edo premiazko** jarduketa behar izatea. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak **ahalik eta azkarren eta lehentasunez** artatzen dituzte normalean:

## Premiazkoa

Emakumeren batek **osasun-arreta behar duten lesioak baditu edo ikusi ez arren egon daitezkeela uste badugu edo bere osotasuna edo bere tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeena arriskuan dagoela baloratzen badugu**, Arreta zerbitzuak artatuko du berehala (ez da beharrezkoa aurretiazko hitzordua).

Telefono bidez kontaktuan jarriko gara dagokion mediku-zerbitzuarekin, dagokion arretarako sarbidea koordinatzeko. Halaber, emakumeari esango zaio lesioen agiri ofiziala eskatzeko, noizbait salaketa jarri nahi badu aurkeztu ahal izateko.

Prozesu honetan arreta berezia jartzen zaie emakumearen guraso-ahalaren pean, tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeen egoerari, eta beharrezko neurriak hartuko dira prozedura osoan zehar indarkeriaren biktima gisa artatuak eta babestuak izateko.

---

2  24 orduko larrialdi-zerbitzuak: Mankomunitateko Arreta Zerbitzutik artatzen dira 8:00etatik 15:00etara. Gainerako orduetan Bizkaiko Foru Aldundiko Larrialdi Sozialen Koordinaziorako Foru Zerbitzutik kudeatzen dira.

3 94 402 50 50 - 112  -  016

Emakumearen edo zaintzapean edo tutoretzapean dagoen adingabearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua dagoela baloratuz gero, poliziari jakinaraziko zaio eta SOS-Deiei, Ertzaintzaren etxeari edo udaltzaingoei eskatuko zaie Oinarrizko Gizarte Zerbitzura etortzeko, edo egokia den beste toki batera joateko, biktima babesteko.

Edozein **sexu-indarkeria** motaren kasuan, SOS-Deiei jakinaraziko zaie beharrezkoak diren gestioak egin ditzan (anbulantzia bidali, polizia eskatu...), ez garbitzeko eta arropaz ez aldatzeko esango zaio, eta erasoak ahotik izan badira ez jateko eta ez edateko, etorkizuneko prozesu judizial batean erabiltzeko funtsezkoak diren frogak ez ezabatzeko. Halaber, biktimari gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura lagunduko diogu.

Aurretik telefono bidez koordinatu behar da [4]ospitaleko larrialdiekin arreta-zerbitzua prestatzen joan daitezen, eta ospitalea arduratuko da medikua edo auzi-medikua etortzeko beharrezko kudeaketak egiteaz, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, auzi-medikuari gertakariaren inguruan dauden datu guztiak emango dizkiogu.

Larrialdia **udaleko OGZen ordutegitik kanpo gertatzen bada (astelehenetik ostiralera 8:00-15:00), arreta Bizkaiko Foru Aldundiaren Larrialdi Sozialetako Koordinazio Zerbitzuarekin koordinatuko da**, eta artatu ondoren, bere erreferentziazko OGZra bideratuko dute emakumea.

## Lehentasunezkoa

### Eskari inplizitua:

Indarkeria matxistaren biktima batzuk OGZra jotzen dute indarkeriarekin zerikusirik ez duten eskaerengatik. Gizarte zerbitzuek hautematen dute indarkeria matxista jasaten egon daitekeela, berak zuzenean eta modu argian adierazi ez arren.

Indarkeria matxista pairatzen duela susmatzen den kasuetan, baina emakumeak esan edo onartzen ez badu, emakumearen parte-hartzearekin diseinatutako arreta- eta jarraipen-plan pertsonalizatuan jasoko dira, besteak beste, laguntza psikologikorako, ahalduntze indibidual eta kolektiborako, hautemateko eta bideratzeko ekintzak.

Erreferentziazko OGZko profesional bat esleituko zaio konfiantzazko lotura sortzeko, jarraipena eta egonkortasuna emateko eta arretarako ibilbidearen eta esku-hartzeen koordinazioaren koherentzia bermatzeko.

Emakumeak baliabiderik egokienetara iristeko aukera izateko eta ekintzak modu eraginkorrean abian jartzeko, OGZk haiekin koordinatuko dira aurretik.

Jarraipena egingo da elkarrizketen bidez eta aldizkako telefono-deien bidez, baita bideratua izan den zerbitzuen koordinazioaren bidez ere.

### Eskari esplizitua:

Emakume batzuk eskari esplizitua egiten dute gizarte-zerbitzuetan pairatu duten edo pairatzen ari diren indarkeria matxistarengatik.

---

4 Ospitaleko larrialdiak (944 100 000)

**Lehenengo elkarrizketaren** helburua da lehen hurbilketa bat egitea biktimaren egoerari buruzko informaziora, bizikidetza-gunearekin, lotura afektiboekin eta laguntza-sareekin, etxebizitzarekin, lan-egoerarekin, autonomia ekonomikoarekin eta abarrekin lotutako premiei eta potentzialtasunei buruzko informaziora, bai eta jasandako indarkeria-motei, aurrekariei eta indarkeriaren testuinguruari buruzko informaziora ere.

Hori guztia laguntza egokia eta pertsonalizatua eskaintzeko eta baliabideen eta bere arazoa konpontzeko aukeren berri emateko. Horretarako, kontuan izango da bai berak, bai bere guraso-ahalaren pean edo zaintzapean dauden adingabeek arreta osoa jasotzeko duten eskubidea.

Beraren eta bere tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeen berri emango da eta, hala badagokio, indarkeria matxistaren kasuetarako doako baliabideetarako sarbidea koordinatu eta kudeatuko da:

Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Sisteman dauden zerbitzuak

- ✓ Arreta psikologikoa
- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Larrialdi Sozialeko Harrera
- ✓ Etxean emakumeen aurka egindako indarkerian espezializatutako familiako esku-hartzea
- ✓ SATEVI- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta 24 orduko telefono bidezko arreta eskaintzeko espezializatutako zerbitzua.

Beste sistema batzuetan eskuragarri dauden zerbitzuak eta baliabideak

- ✓ Osasun-arreta udalerriko Lehen Arretarako Zentroaren bidez.
- ✓ Babesa eta segurtasuna Getxoko Ertzainetxearen eta udalerriko Udaltzaingoaren bitartez.
- ✓ 24 orduko txanda eta ofiziozko txanda espezifikoa: Bizkaiko Abokatuen Elkargoa
- ✓ Elkarteen mugimendua: emakumeen ahalduntzerako eta sare sozio-kulturala indartzeko jarduerak.

Zerbitzuekin argudioak landuko dira aldez aurretik erabilera sustatzeko. Emakumeari egoera gainditzeko eskaintzen zaizkion baliabideak erabiltzearen garrantzia gogoraraziko diogu, bereziki arreta psikologikoko, orientazio juridikoko eta elkarte-mugimenduko programak.

Jakinaraziko diogu bere eskura jarriko direla bere segurtasuna babesteko eskuragarri dauden bitarteko guztiak, eta izanez gero, baita bere seme-alabena edo bere kargu dauden beste pertsona batzuena ere.

Aholkularitza juridikorako zerbitzuetan gerora aholkularitza kualifikatuagoa eman diezaioketen arren, gizarte-zerbitzuetatik oinarrizko aholkularitza eta informazioa emango zaio bere eskubideen, bere seme-alaben eskubideen eta bere tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeen inguruan, eta egin beharreko balizko izapideen eta prozedura judizialen inguruan:

Ertzaintzan salaketa jartzeko eskubidea; Babes Agindua eskatzeko aukera eta onura; banaketa zibilerako aldi baterako neurriak eskatzea; legezko baldintzak betez gero, doako justizia izateko aukera Orientazio Juridikorako Zerbitzuen eta Abokatuen Elkargoaren bidez, eta 35/1995 Legean jasotzen diren laguntzak eskatzeko aukera Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen bitartez.

Salaketarik jarri ez badu, prozesuaren berri emango zaio, horren inguruko erabaki informatua har dezan.

Biktimari jakinaraziko zaio Babes Aginduak salaketaren izaera duela eta Legeak Babes Agindua gizarte-zerbitzuetan eskatzeko aukera ematen duen arren, polizian eskatzea gomendatuko diogu eta horren garrantzia azaldu. Izan ere, hala, izapideak ekidin daitezke eta Agindua azkarrago lor daiteke (bera eta erasotzaile epaitegian izan ondoren, 72 ordura gehienez ere).

Erreferentziako OGZko profesionala esleituko zaio, arreta-ibilbidearen jarraitutasuna, egonkortasuna eta koherentzia eta esku-hartzeen koordinazioa bermatzeko.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalak kasuaren jarraipena egingo du prozesu osoan zehar, biktimen arretarako zerbitzu eta programekin koordinatuta, emakumeei eta haien seme-alabei laguntzeko.

Hizkuntzaren mugak baldin badaude, telefono bidezko aldi bereko itzulpen-zerbitzua erabiliko da (DUALIA). Zerbitzuak hizkuntza ugari eskaintzen ditu beharra duten atzerriko pertsonentzat.

Edozein prozesu-aldaketaren faseak eta erritmoak ebaluatzea ona da emakumea bizitzen ari den unera egokitutako ekintzen proposamenak egiteko:

- **Ez du salaketa jarri nahi**

Biktimak ez badu salaketarik jarri nahi eta Babes Agindua eskatu ere ez badu egin nahi, salaketak dituen ondorio positibo eta negatiboak azalduko dizkiogu, salaketa jartzera behartu gabe.

Doako baliabideen berri emango diogu eta egoera bakoitzerako egokienak diren baliabideetarako sarbidea kudeatu eta koordinatuko dugu. Kontuan izan behar da gizarte langileak beharrezkoak iruditzen zaizkion premiazko neurriak eska ditzakeela epaitegian, *1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoaren 19.4. artikuluaren* arabera. Eskaera horiek fiskaltzaren bidez bideratuko dira.

Babes Agindua biktimarekin senidetze-erlazio hau duten pertsonek ere eska dezakete: ezkontideak edo emakumearekin antzeko erlazio afektiboaren bidez modu iraunkorrean lotuta dagoen edo egon den pertsonak, ezkontidearen edo bizikidearen seme-alabek, tutoretzapekoek, aurrekoek edo biktimarekin bizi diren pertsonek edo bere gurasotasun-ahala, tutoretza, zaintza edo egitatezko zaintza dutenek, betiere eskaeraren arrazoiarekin loturarik ez badute eta eskaera egiteko gaitasuna badute.

Emakumearekin batera arretarako plan pertsonalizatua diseinatuko da, erreferentziazko OGZko profesional bat esleituko zaio konfiantzazko lotura sortzeko, jarraipena eta egonkortasuna bermatzeko eta arretarako ibilbidearen eta esku-hartzeen koordinazioaren koherentzia bermatzeko.

Jarraipena egingo da elkarrizketen bidez eta aldizkako telefono-deien bidez, eta baita bideratua izan den zerbitzuen koordinazioaren bidez ere.

Jarraipena *trinkoa*, *erdi-trinkoa* edo *mantentzeko* izan daiteke.

- Trinkoa izango da krisi-egoeraren bat baldin badago edo berehalako jarduketa dela eta egoeran aldaketa esanguratsuak izango direla aurreikusten bada.
- Jarraipen erdi-trinkoa egingo da atzera egitea ekiditeko eta helburuak indartzeko aldaketa esanguratsuak izan direnean.

- **Salaketa jarri nahi du**

Emakumearekin batera aztertuko dira bere bizitzako hainbat alderdi: etxebizitza, harreman sozialak, diru-sarrera ekonomikoak, enplegua... Halaber, salaketa jarri ostean egon daitezkeen balizko agertokiak eta aukera posibleak eta laguntzak ere aztertuko dira.

Salaketa jarri aurretik, lehentasuna izango da emakumeari **Aholkularitza Juridikoarekin** hitzordua hartzeko aukera ematea.

Hitzordua ahalik eta azkarren izango da. Aholkularitzak xehetasunez aztertuko du bere kasua eta zehatz azalduko zaizkio bere eskubideak eta hasi beharreko balizko tramiteak eta prozedura judizialak.

Salaketa ahal bada Ertzaintzan jarriko da, epaitegira zuzenean bideratu beharrean, prozedura luzatzea ekiditeko edo epaitegira lehen aldiz Ertzaintzaren laguntzarik gabe ez joateko. Salaketa zehazteko, Gizarte Zerbitzuak lehenago harremanetan jarriko dira Getxoko ertzain-etxearekin, biktimak behar duen arretarako sarbidea errazteko.

Garrantzitsua da gogoraraztea salaketa jartzeko espezializatutako ofiziozko abokatuak bertan egon behar duela. Hortaz, Ertzaintzak harremanetan jarri beharko du berarekin eta polizia-etxean egon dadin koordinatu.

Garrantzitsua da gogoraraztea salaketa jartzeko espezializatutako ofiziozko abokatuak bertan egon behar duela. Hortaz, Ertzaintzak harremanetan jarri beharko du berarekin eta polizia-etxean egon dadin koordinatu. Gainera, komeni da OGZko edo Gizarte Larrialdietako koordinazio zerbitzuko gizarte-langilearen laguntza ere izatea.

- **Erasotzailearekin duen bizikidetza eten nahi du**

Bere etxebizitzan geratzen bada (erasotzailearekin partekatu gabe) edo ohiko etxebizitza uzten badu, baina harrera-pisu batera bideratzeko beharrik ez badago, gizarte-langileak kasuaren jarraipena egingo du, eta bere beharrei erantzuteko dauden baliabideak eskaini eta kudeatuko ditu.

Emakumeak etxebizitza bat beharko balu berehala, Ertzaintzari deituko zaio biktima polizia-etxetik bertara eramateko, betebehar hori jasotzen duen Ertzaintzaren instrukzioaren arabera.

Emakumeak nahiago badu bere etxebizitzara gizarte-sareak edo senideek lagunduta itzuli, izan ditzakeen arriskuen berri eman behar zaio, esaterako, epaiketa azkarra izan arte eta/edo urruntze-agindua eman arte poliziaren babesa ez izateagatik.

Nolanahi ere, Gizarte Zerbitzuek bermatu beharko dute emakumeak baliabide hori duela eta senideen edo lagunen etxebizitzara joatea erabakitzen badu, Udaltzaingoari jakinaraziko dio eta haiekin koordinatuko da zaintza-lanak egin ditzaten urruntze-agindua tramitatu bitartean.

- **Bere erasotzailearekin bizitzen jarraitzen du**

Gizarte-langileak arreta pertsonalizaturako plana diseinatuko du emakumearen laguntzarekin. Emakumeari laguntzeko eta bere beharrei erantzuteko beharrezko baliabideak eskaini, kudeatu eta koordinatuko ditu (juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak, soziohezitzaileak, enpleguarenak, etab.).

Egoeraren jarraipena egingo da emakumearekin aurrez aurre bilduta eta telefono bidez, bai eta beharrei erantzuteko bideratua izan den baliabideen koordinazioaren bidez ere. Uneoro emango zaio eskura dituen laguntzen eta baliabideen berri, bizikidetza etetea erabakitzen badu.

## Jarduketa osasun-arloan

Osasun-sistema funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioan eta jarduketan; izan ere, hainbat osasun-arazorengatik jotzen dute emakumeek zerbitzu horietara.

Osasun Zentro batera joaten den, izan lehen arretako kontsulta batera, espezializatura edo larrialdi-zerbitzuetara, bai arlo pribatuan, bai publikoan, tratu txarren, sexu-indarkeriaren edo indarkeria psikologikoaren biktimarekin jarduteko, “Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko osasun-langileentzako jarduketa-gidan” ageri diren indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak tratatzeko jarraibideetara egokitu behar da osasun-langilea[5].

Uribeko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) 24 udalerritako 220.000 herritar inguru artatzen ditu, eta lehen arretarako 10 unitatek, 30 osasun-zentro eta kontsultategik, 3 etengabeko arretarako gunek (EAG) eta Alfredo Espinosa-Urduliz ospitaleak osatzen dute.

Mankomunitateko Osasun Zentroek astelehenetik ostiralera eskaintzen dute arreta. Osasun-beharrak larrialdietako zerbitzuek bermatzen dituzte, 944 100 000 telefonoaren eta Areetako, Gorlizko eta Mungiako Etengabeko Arretarako Gunearen (EAG) bidez.

Gorlizeko EAGk lanegunetan 15:00etatik 24:00etara eta jaiegunetan eta asteburuetan 9:00etatik 24:00etara funtzionatzen du; Areeta eta Mungiako EAGren ordutegia 20:00-08:00 da lanegunetan eta jaiegun eta asteburuetan 24 orduz, 08:00-08:00.

Uribeko EAGko Alfredo Espinosa-Urduliz ospitaleak ospitaleko arreta, kanpoko kontsultena, larrialdi-zerbitzuena eta beste zerbitzu batzuena eskaintzen du, eta 17 udalerrietako biztanleei eskaintzen dizkie zerbitzuak. Larrialdiak 24 orduz daude.

Mankomunitateko Osasun Zentroek astelehenetik ostiralera eskaintzen dute arreta. Osasun-beharrak larrialdietako zerbitzuek bermatzen dituzte, 944 100 000 telefonoaren eta Areetako, Gorlizko eta Mungiako Etengabeko Arretarako Gunearen (EAG) bidez. Uribeko EAGko Alfredo Espinosa-Urduliz ospitaleak ospitaleko arreta, kanpoko kontsultena, larrialdi-zerbitzuena eta beste zerbitzu batzuena eskaintzen du, eta 17 udalerrietako biztanleei eskaintzen dizkie zerbitzuak. Larrialdiak 24 orduz daude eta obserbazioko saila ere badu.

Osasun Zentroek eta Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuek egoera mota horiek artatzeko gelak dituzte, konfidentzialtasuna eta intimitate egokia bermatzeko, baita protokoloa bera ere.
Osakidetzak eskaintzen dituen **zerbitzuak**:

- **Lehen arretako zentroak:** Lehen arreta da sistemarako sarbidea, paziente bakoitzak bere erreferentziazko profesionala du zuzenean artatzeko edo bere beharretara ondoen egokitzen den baliabidera bideratzeko.

5Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko gida (2019).

- **Etxeko arreta:** Lehen Arretaren esparruan, arreta diseinatuta dago arrazoi fisikoak eta/edo klinikoak direla eta osasun-zentrora joan ezin duten pertsonei osasun-arreta etxean emateko. Pazienteei haien ingurunean ematen zaie tratamendua eta beharrezkoak ez diren lekualdatzeak saihesten dira.

- **Ospitaleko arreta:** Ospitalera sartzen diren pazienteei ematen zaien arreta da eta kanpo kontsultetatik, larrialdietatik eta abar irits daitezke. Hainbat espezialitatetako zerbitzuak eskaintzen dira, proba osagarri espezifikoak, ospitaletako laguntza-zerbitzuak eta ospitaleratzea, oro har.

- **Etengabeko arreta guneak:** Etengabeko Arreta Guneen bidez (EAG) hil edo bizikoak ez diren larrialdiak artatzen dira osasun-zentroaren arretarako ordutegitik kanpo edo jaiegunetan (ospitale kanpoko larrialdiak). Bestalde, ospitaleko larrialdiek eguneko 24 orduetan artatzen dute.

- **Pediatria eta familiako medikuntza:** Sistemak pediatria-zerbitzuak eta familiako medikuntza eskaintzen ditu haurrentzat eta nerabeentzat, bai lehen arretan, bai larrialdietan. Arreta-zerbitzuen arteko koordinazioa funtsezkoa da, batez ere pediatria eta familiako medikuntzarena, seme-alabei eragiten dien indarkeria matxistaren kasuetan. Izan ere, egoera pribilegiatua dute batez ere familian gertatzen diren arazoen hautemate goiztiarrerako eta prebentziorako.

- **Buru-osasuneko zerbitzuak:** Buru Osasuneko Sareak buruko gaixotasunak dituzten pertsonak artatzen ditu, ospitale kanpoko eta ospitaleko arretaren bidez. Sare horrek hainbat zerbitzu ditu: ospitaleak, buru-osasuneko zentroak, Eguneko ospitaleak, Komunitateko Asertziozko Tratamenduen Taldeak, etab.

Aztertzen ari garen kasuan, nahiz eta Euskadiko emakumeen aurkako indarkerian osasunaren arloko profesionalentzako jarduera-gida Osakidetzako profesionalei berariaz zuzenduta egon, indarkeriaren biktima den emakume baten identifikazioa biktimei zuzeneko laguntza ematen dien edozein agenterengandik etor daiteke, eta azken horrek jarduera-protokolo espezifikoetan zehaztutako prozedurak hasi beharko ditu.

Jarraian, “Genero-indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko osasun-langileentzako jarduketa-gidan” ezarritako jarraibide eta gomendio nagusiak atera eta laburbilduko ditugu, osasun-sistema osoarentzat funtsezko erreferentzia baitira. Gidan ageri den moduan, osasun-sistema funtsezkoa da jarduteko hiru-mailetan:

## Prebenitzeko eta hautemateko jarduketak

Lehenik eta behin, jarduketak hautemateko eta prebenitzeko jarduketetara bideratu behar dira, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak eman ez daitezen.

Indarkeria-egoeretarako **balizko sarbideak**.

- Larrialdi-zerbitzuetatik zuzenean.
  - Beste zerbitzuetatik bideratuta
  - Berezko ekimenez

- Lehen arretako zerbitzuetara joanez zuzenean.
  - Eskari inplizituarekin, hau da, norbait indarkeria-egoera pairatzen ari dela susmatu edo hautemanez gero.
  - Laguntza-eskaera esplizituarekin eta indarkeria-egoera dagoela adierazita.

Balizko sarbideetan aipatutako azken kasuari dagokionez, nabarmendu behar da Osakidetzako profesionalek, eskaintzen duten zerbitzua edozein dela ere, esku hartu behar dutela **kasuak hautematen** eta, beraz, indarkeria-mota horren bilaketa aktiboan. Hori lortzeko genero-ikuspegia txertatu behar dute osasun-arazoen diagnostikoan eta tratamenduan.

Osasun-sistematik igarotzen diren indarkeriaren biktimek baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla esplizituki adieraztea ala ez. Hala ez bada, baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla agerian uzten duten zantzuak eta sintomak izatea. Kasu horietan, beharrezkoa izango da emakumeari galdetu eta ikertzea, indarkeria-egoerak baieztatu edo baztertzeko, betiere bere denborak errespetatuz.

Historia klinikoan indarkeriarik erregistratzen ez bada, jarraipen-ekintzak aktibatuko dira lehen arretatik. Indarkeriaren biktima izan diren seme-alabak ere faktore erabakigarria izan daitezke indarkeria identifikatzeko.

## Hasierako Oinarrizko Jarduketa

Jarduteko eskemaren diseinua arretarako edozein testuingurutan kasu bat hautematen duen edozein profesionalek aplikatzeko dago egina (larrialdiak, lehen arreta, ospitaleratzeak...) eta item hauek ezartzen ditu:

- ✓ ENTZUN emakumea.
- ✓ HARRERA ETA ENPATIA.
- ✓ ARRISKUEN BALORAZIOA. Emakumearen bizitzarako eta seme-alabentzat dauden arriskuak ebaluatu. Hil ala biziko larrialdien zantzuak eta sintomak (baldin badaude), arrisku psikologikoa, egoera soziala, segurtasun-falta, isolamendua eta seme-alaben egoera (baldin baditu) artatu. Egoeraren arabera, baliabide batera edo bestera bideratuko dira:
  - Larrialdi sozialaren kasuan, gizarte-zerbitzuen arloko larrialdi sozialen zerbitzuarekin jarriko da harremanetan[6].
  - <u>Arriskuan dauden adingabeen</u> kasuan, pediatriako erreferentziazko zerbitzuekin, familiako medikuarekin, erreferentziazko erizainarekin, dagokion haurren zentro sozialarekin eta gizarte-zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, betiere amaren baimena izanez gero, salbuespen kasuetan izan ezik.
  - Emakumearen eta seme-alaben <u>segurtasunerako</u> beharrezkoa izanez gero, poliziari eta zentroko segurtasun-zerbitzuei jakinaraziko zaie. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.
  - Berriki izandako <u>lesio edo sexu-erasoen</u> kasuan, gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura bideratuko da, premiazko balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko.
  - Berriki eginak ez diren <u>lesio edo sexu-erasoen</u> kasuan, gertuen dagoen ospitalera bideratuko da, balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko eta behar diren kontsultak aktibatuko dira.
- ✓ JARRAIPENA ETA BIDERAKETA Laguntzaren jarraipena bermatuko da eta emakumea bere erreferentziazko osasun-langileak arta dezan saiatuko gara (Lehen Arreta). Modu proaktiboan bideratu behar da, pazienteari ez zaio besterik gabe gomendatu behar bere profesionalarekin

---

6 94 402 50 50.

harremanetan jartzeko. Bere ohiko profesionalak egoeraren berri izateko eta esku hartzeko komunikazio-bideak ezarri behar dira.

Era berean, emakumea beste osasun-langile batzuek ere artatzen badute eta indarkeria-egoerak arazo horrengan eragina badu (buruko osasunean, esaterako), komeni da arazoaren hedapena egitea, koordinazio eta ekintza-plan bateratuak egiteko.

- ✓ ERREGISTROA. Jarduketa oro emakumearen historia klinikoan erregistratu behar da. Gidak informazio xehea ematen du kasua nola erregistratu jakiteko.

- ✓ KOMUNIKAZIO JUDIZIALA. Lesio fisikoak edo psikikoak badaude laguntzeaz arduratuko den profesionalak dagokion lesioen parteen eredua bete beharko du, eta emakumeari jakinarazi. Halaber, kopia bat epaitegira bidali beharko du, baldintza hauek kontuan hartuta: - Betiere emakumeak eskatu edo baimentzen badu.

    - Emakumeak indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertukoa dagoela baloratuz gero, nahiz eta berak nahi ez izan.
    - Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da. Hau da, osatze-prozesu pertsonalean dagoenean, bere etorkizuneko alderdi batzuen inguruko erabakiak hartu dituenean eta bere bizitzako egoera aldatzen hasteko estrategia prest duenean.

## Laguntzeko eta jarraipena egiteko jarduketa

- ✓ EBALUAZIOA Oinarrizko hasierako kontsultan egindakoari berriz helduko zaio, lortutakoa indartu eta erronka berriak jorratzeko.
- ✓
- ✓ HARRERA

- ✓ Egoerari berriz ekitea ARRISKUAK berriro ebaluatzeko: fisikoak, emozionalak eta sozialak. Premiazko egoerak jorratzea eta etorkizunean etor daitezkeen beste arrisku batzuk prebenitzea ahalbidetzen duen azterketa xehea egitea.

- ✓ Emakumeak dituen LAGUNTZAK eta aukerak ebaluatzea.

- ✓ OSASUNEKO BARNE KOORDINAZIOA: Seme-alabak erasotzailearen indarkeriaren zuzeneko biktimak dira, erasoen lekukoak izan direlako edo zuzenean indarkeriaren ondorioak pairatu dituztelako. Kasu gehienetan, seme-alabak gure osasun-sistemako pediatriako langileek artatzen dituzte. Koordinazioak baliabide guztien esku-hartzeak ildo berean indartzen laguntzen du. Emakume biktima askok denbora daramate buru-osasuneko unitateen artaren pean. Batzuetan indarkeria-egoerak sortutako diagnostikoak dituzte. Emakumea beste baliabide edo profesional batzuek artatzen badute eta indarkeria-egoerak arretan eragina izan dezakeela susmatzen badugu, jakinarazi egingo dugu eta koordinaziorako eta elkarlanerako mekanismoak ezarriko dira.

- ✓ KANPOKO KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA

- ✓ ERREGISTROA. Jarduketa guztiak erregistratu egingo dira.

Edozein prozesu-aldaketaren faseak eta erritmoak ebaluatzea ona da emakumea bizitzen ari den unera egokitutako ekintzen proposamenak egiteko:

- **Emakumeak ez du aitortzen indarkeria arazoa denik**

Helburua tratu txarrak onartzearen inguruko zalantza sustatzea izango da. Arazo handia dela ikusteko kontzientzia handitzea eta onarpena txikitzea.

Egoeraren arabera, muturreko indarkeria-kasu baten aurrean har daitezkeen neurri batzuk aztertuko dira: erreferentziazko pertsonak izatea, premiazko laguntza eskatzeko telefono-zenbakiak eta erakundeak ezagutzea edo adingabeak babesteko moduak jakitea.

- **Emakumea ohartzen hasi da abusu-erlazioa dagoela.**

Kontzientzia hartzea areagotu eta aldaketak egitearen inguruko ziurgabetasuna bideratzea da helburua.

Indarkeria-egoeretarako baliabide egokiak dituzten eragile sozial eta instituzionalekin koordinazioak eta kontaktuak ezarriko dira, batez ere gizarte-zerbitzuekin eta/edo elkarteen mugimenduekin. Emakumeari aukerak iradokitzea ahalbidetu eta aldaketa errazten duen sareak babesten duela sentiarazi behar zaio.

Emakumearekin batera segurtasun- eta ihes-plana egingo da, arrisku-egoeraren bat sortzen bada gauzatzeko:

- Telefono-mugikorra izatea eta polizien, biktimen elkarteen, senideen edo konfiantzako pertsonen zenbakia gordeta izatea. Gertuko pertsona horiek jakin behar dute emakumearen dei batek arriskuan dagoela esan dezakeela.

- Iheserako plana izatea; aldez aurretik prest izatea dokumentazioa, arropa, etxeko giltzak, mediku-txostenak, medikamentuak eta, baldin badaude, aurreko salaketak. Dirua eta kreditu-txartelak.

- Seme-alabak baditu, ihes egiteko behar duten guztia prest izatea edo etxetik ateratzera behartzen dituen alarma-egoerak ezartzea haiekin.

- **Emakumeak egoera aldatu nahi du**

Helburua emakumeari laguntzea da, aldaketa batzuk egin ahal izateko ahalik eta planik onena zehazteko.

Aurreko fasean bezala, gizarte-zerbitzuetara eta/edo elkarteetara sartzeko koordinazioa eta kudeaketa, bai eta segurtasunerako eta iheserako plana ere, emakumearekin baloratu behar dira, sor daitekeen indarkeria dela eta.

- **Emakumeak egoera aldatzeko ekintzak egin ditu**

Fase honen helburua emakumeari aldaketarako ekintzetan laguntzea da, bakarrik senti ez dadin eta prozesua berretsi dezan.

Une horretan arreta berezia jarri beharko da emakumearen eta bere seme-alaben segurtasunean eta babesean; izan ere, ekintza-fasean sor daiteke bereziki indarkeria.

- **Emakumeak indarkeria-egoerarekin amaitu du**

Hasitako ekintzak mantentzen laguntzea da helburua, berriz erortzea ekiditeko estrategiak identifikatzea eta arriskuaren zaintzari eustea.

Maila pertsonalean, familiarrean, sozialean, ekonomikoan eta lanekoan berreraikitzeko prozesurako baliabide egokietarako sarbidea koordinatuko da.

Bizitza sozial normala egitea estimulatuko da egoera bakoitzaren barruan ahal den heinean, eta bizitza osasungarriaren alderdi guztien balioa nabarmenduko da. Emakumeen taldeak eta komunitateko beste baliabide batzuk oso erabilgarriak izan daitezke isolamendua ekiditeko eta indarkeriarik gabeko bizitzarako borondatea indartzeko.

## Berriki gertatutako sexu-indarkeriaren aurrean jardutea (120 ordu baino gutxiago).

Emakumea edozein asistentzia-testuingurutatik sartzen bada edo bertan jarraitzen badu (Larrialdi Zerbitzua, ziurrenik), erasoa jasan duen emakumea itxarongelan ez egotea lortuko da, eta konfiantzazko pertsona batek laguntzea erraztuko da. Ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango diogu, baita ez jateko edo ez edateko ere felazioa egon bada, ahal den heinean.

Ahalik eta azkarren bideratuko da gertuen dagoen **ospitalera**.

Kontuan izan beharrekoa: sexu-erasoen aurrean jarduteko ezinbestekoa da ospitaleak koordinazio ona izatea guardiako epaitegiarekin.

- **Emakumea salaketa jarri ondoren joan da ospitalera** Ospitaleak guardiako epaitegiari eman behar dio egoeraren berri, eta baimen judiziala izan ondoren, auzi-medikuak artatuko du pazientea guardiako ginekologoarekin batera.

- **Emakumea salaketa jarri gabe joan da ospitalera** Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera.** Ospitaleko medikuak artatu egingo du eta auzi-medikuak delitua ikertu (lesio-motak, lagin biologikoak eta biologikoak ez direnak jaso, etab.).

Ospitaleak berehala jakinarazi beharko dio gertakaria guardiako epaitegiari, emakumeak salaketa jarri nahi duen ala ez gorabehera.

Gainera, emakumeak delitua salatu nahi badu, Ertzaintzari ere jakinaraziko zaio, eta Ertzaintzak lege-laguntzarako ofiziozko txandan dagoen abokatuen elkargoari.

Biktimak ez badu gertaera salatu nahi eta Babes Agindua eskatu nahi, salaketa eskubidea izateaz gain jasaten ari den indarkeria-erlazioa hausteko eta, egokia izanez gero, Justiziako Administrazioaren babes-mekanismoetara (erasotzailearen urruntzea, babes poliziala, aitak seme-alabarekiko dituen eskubideak bertan behera uztea, etxebizitzaren erabilera, elikagaien pentsioa, etab.) heltzeko bidea dela jakinaraziko zaio, salatzera animatzeko.

Nolanahi ere, biktimari jarduketa azalduko zaio, ahal den heinean, eta baimena eskatu.

- ✓ Laguntzeko jarduketa eta dagokion tratamendua. Erasoaren ostean emakumeak izango dituen inpaktu psikikoak ahalik eta gehien murrizteko, ginekologoaren eta auzi-medikuaren ebaluazioa batera egingo dira, eta errekonozimendua aldi berean eta koordinatuta egingo da.

- ✓ Ginekologoak txosten klinikoa egingo du, epaitegirako auzi-medikuaren txostena, aldiz, auzi-medikuak.

- ✓ Lesioen partea betetzea eta biktimari irakurtzea.

- ✓ Lesioen partea ahalik eta azkarren igortzea Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegira edo Guardiako Epaitegira.

- ✓ Lesioen partearen kopia eta epaitegira igorritako idatziarena biktimari ematea, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen ez badu. Kasu horretan konfiantzako pertsona baten izena eskatuko zaio jasotzeko.

- ✓ Lesioen parteak eta igorritako idatzia biktimaren historia klinikoan sartzea.

- ✓ Laguntzeko lehen jarduketa Larrialdi Zerbitzuetatik edo Espezializatutako Arretatik egin bada, biktimari mediku-txostena ere emango zaio, aurrerantzean artatuko duen medikuak jarraipen egokia egin ahal izateko.

- ✓ Biktimari neurri sozialen eta babes-neurrien berri emango zaio osasun-zentroko baliabideetatik edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko profesionalekin harremanetan jarriko da.

## Berriki gertatu ez den sexu-baten aurrean jardutea (120 ordu baino gehiago) edo ageriko lesio fisiko edo psikikoen aurrean.

Berriki gertatu ez den sexu-erasoaren edo ageriko lesio fisikoak edo psikikoak dituen pazientearen balorazioan ez da beharrezkoa izango pazientea ospitalera bideratzea. Kasu hauetan pazientearen balorazioa ospitaleetan egin beharko da sexu-erasoa berriki gauzatu bada (120 ordu baino gutxiago) eta ospitaleetan edo osasun-zentroetan erasoa ez bada berriki egin (120 ordu baino gehiago).

Biktimari jarduketa azalduko zaio, ahal den heinean, eta baimena eskatu.

- ✓ Laguntzeko jarduketa eta balizko kalte fisiko eta/edo psikikoei dagokien tratamendua. Jarduketa-planarekin hasteko dagokion diagnostikoa/jarduketa-terapeutikoa egingo da: serologiak eskatu, sexu-transmisio bidezko infekzioak baztertu, hepatitis Baren aurkako txertoa...

- ✓ Lesioen partea betetzea eta biktimari irakurtzea.

- ✓ Emakumea salaketa jartzera animatuko dugu, polizian, fiskaltzan edo guardiako epaitegian. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.

- ✓ Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera.** Lesioen partea ahalik eta azkarren igortzea Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegira edo Guardiako Epaitegira.

- ✓ Lesioen partearen kopia eta epaitegira igorritako idatziarena biktimari ematea, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen ez badu. Kasu horretan konfiantzako pertsona baten izena eskatuko zaio jasotzeko.

- ✓ Lesioen parteak eta igorritako idatzia biktimaren historia klinikoan sartzea.

- ✓ Laguntzeko lehen jarduketa Larrialdi Zerbitzuetatik edo Espezializatutako Arretatik egin bada, biktimari mediku-txostena ere emango zaio, bere erreferentziazko medikuak jarraipen egokia egin ahal izateko. Mediku horrekin kontaktatu eta koordinatu beharko da, biktima bideratzeko eta beharrezkoa den jarraipenerako arretara sartzeko.

- ✓ Biktimari neurri sozialen eta babesleen berri emango zaio osasun-zentroko baliabideen bidez, edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin koordinatu eta kudeatuko da premiazko kontaktua.

Laburbilduz[7], lesioen partea igortzeko baldintza hauek izango dira kontuan:

- Betiere emakumeak eskatu edo baimentzen badu.
- Emakumeak indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertukoa dagoela baloratuz gero, nahiz eta berak nahi ez izan.
- Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da. Hau da, osatze-prozesu pertsonalean dagoenean, bere etorkizuneko alderdi batzuen inguruko erabakiak hartu dituenean eta bere bizitzako egoera aldatzen hasteko estrategia prest duenean.

## Poliziaren jarduketa

## Ertzaintza

Euskadiko polizia Ertzaintzak eta Udaltzaingoak osatzen dute eta Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistema Arautzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak eta Euskadiko Polizia Legea bosgarrenez moldatzeko ekainaren 27ko 7/2019 Legeak arautzen dute. Tokiko erregimenaren oinarrien lege arautzaileak 25. artikuluan ezartzen ditu udalerrien eskumenak, eta horietan udaltzaingoak zeregin nabarmena du.

Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistemak, segurtasun publikoan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak eta udalerriek Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren jarduketa koordinatu eta bateratua errazten dute, haien eskumenen arloan eta bakoitzaren gaitasunen barruan sortzen diren arazoak modu eraginkorragoan jorratzeko.

Ertzaintzak Getxoko polizia-etxetik eskaintzen du arreta eta zerbitzua Uribe Kostako Mankomunitatean. 24 orduko zerbitzua da.

Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren (EI/GI) jarduketa-prozedurak zehaztuta ditu 2002tik, Segurtasuneko Sailburuordetzatik igortzen diren derrigorrezko jarraibideen bidez. Nabarmendu behar da bere eskumenen esparruan emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motari erantzuten diola.

Ertzaintzak ez ditu arreta poliziala eta babes poliziala bereizten, eta babes aktiboa eskaintzen die biktimen % 100ari. Halaber, guztiak aplikazio informatiko batean erregistratzen ditu, EI/GI espedientearen barruan. Une horretatik aurrera, biktimarekin arrisku-maila edozein dela ere, eta epaitegian hartutako ebazpena gorabehera, poliziak babesa eskaintzen du (beti aktiboa).
Ertzaintzak bere egituraren zati handi bat inplikatzen du EI/GI arazoa jorratzeko. Ez ditu “unitate bereziak” ezartzen, langile guztiek esku hartzeko xedea duten sistema ezartzen du, jarduteko-prozedurak eta fase bakoitzeko erantzukizunak zehaztu eta ezartzen dituen prozesuaren bidez, eta jarduteko modua estandarizatzen du.

---

7Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko gida (2019).

Arriskuaren balorazioa etengabea da, eta garapenak Ertzaintzaren ereduari eta polizia-egiturari erantzuten dio. Hala, larrialdietako lehen arreta eta biktimen oinarrizko prebentziorako lanak herritarren babeserako ohiko zerbitzuek egiten dituzte, beste batzuk berriz, hala nola kasuen koordinazioa, arreta iraunkor eta pertsonalizatua, arriskuaren balorazioa eta larrialdietarako neurrientzat ezarritako babes-neurriak polizia-etxe guztietan dauden talde espezifikoek egiten dituzte.

Ertzaintzak biktimari eskaintzen dizkion **zerbitzuak**:

Herritarren babesa

- ✓ Larrialdietan biktimak lagundu eta sorostea.
- ✓ Biktimarekin eta bere menpeko pertsonekin jardutea.
- ✓ Erasotzailearekin esku-hartzea.
- ✓ Hasierako arriskuaren balorazioa egitea.
- ✓ Prebentzio-jarduerak.
- ✓ Biktima babestea.
- ✓ Udaltzaingoari EI/GIrekin zerikusia duen edozein jazoeraren berri ematea.
- ✓ Norberaren telefonoan BORTXA aplikazioa deskargatzeko eskaintzea. Arrisku-mailarik altuenetan, biktimak aplikazioa ezin badu instalatu telefono bat eskaintzea.

Guardiako ikerketa-saila.

- ✓ Prebentziorako diligentziak: salaketa jasotzea, ikertzea eta atestatua egitea, bai eta Babes Agindua eta epaiketa azkarra kudeatzea ere.
- ✓ Biktimari jakinaraztea lege-laguntza jaso dezakeela salaketa jarri bitartean eta/edo babes Aginduaren irismenaren eta edukiaren informazioa jasotzeko.
- ✓ Aholkularitza jaso nahi badu, polizia epailearekin jarriko da kontaktuan eta biktimari jakinaraziko dio zenbat denbora beharko duen iristeko, polizia-etxean artatua izan nahi duen ala ez erabakitzeko.
- ✓ Biktima gisa dituen eskubideen inguruko informazioa ematea idatziz.
- ✓ Laguntza-baliabideen inguruko aholkularitza.

Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren saila

- ✓ EI/GI txostena igortzea.
- ✓ Biktimari arreta ematea.
- ✓ Arriskuaren balorazioa.
- ✓ Babes-neurriak zehaztu eta jarraipena egitea.
- ✓ Biktimaren autobabeserako prestakuntza.
- ✓ Biktimari ausaz deitzea.
- ✓ Biktimarekin eta erasotzailearekin elkarrizketa izatea.
- ✓ Prebentzioaren plangintza.
- ✓ Kasuen jarraipen pertsonalizatua egitea.
- ✓ Gizarte-zerbitzuekin koordinatzea eta informazioa trukatzea.
- ✓ Udaltzaingoarekin koordinatzea eta biktimaren zein erasotzailearen informazioa trukatzea, baita epaitegiak ezarritako babes-neurriena ere.
- ✓ Norberaren telefonoan BORTXA aplikazioa deskargatzeko eskaintzea. Arrisku-mailarik altuenetan, biktimak aplikazioa ezin badu instalatu telefono bat eskainiko zaio, aurretik egin ez bada.

## Prebentzio-jarduketak

Lehenik eta behin, prebentzio-jarduketak hautemateko eta prebenitzeko jarduketetara bideratu behar dira, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak eman ez daitezen.

Indarkeria-egoeretarako **sarbideak**.

- Larrialdietako abisuak.
- Hirugarren pertsonen edo biktimaren deiak.
- Emakumea polizia-etxera joaten da salaketa jartzera.
- Udaltzaingoak igorrita.
- Lesioen partea jaso duen epaitegiak bidalita. Osakidetza.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek igorrita.
- Epaitegiak Babes Agindua igorrita.
- Beste polizia batzuek igorrita (biktima etxez aldatu delako).

## Urgentea

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko (arreta berezia jarri behar da haur eta nerabeengan).

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak baditugu, telefonoz harremanetan jarriko gara dagokion mediku-zerbitzuarekin, dagokion arretarako sarbidea izateko. Abisua emango zaie prest egon daitezen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

Berriki egindako **sexu-erasoa** bada, gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura bideratuko da. Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira. Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, auzi-medikuari gertakariaren inguruan dauden datu guztiak emango dizkiogu.

Biktimari ez zaio aitorpena hartuko osasun-langileek azterketa egin arte eta bere behar pertsonalei erantzun arte. Ustezko erasotzailea bide judizialetik zigortzeko salaketa jartzeak duen garrantziaren berri emango zaio.

Emakumearen tutoretzapean edo zaintzapean adingabeak badaude, legeak biktimatzat hartuko ditu eta arreta eta babes egokia jaso beharko dute. Emakumea haien zaintzaz arduratu ezin den unerako biktimak esandako pertsonei edo senideei eskatuko zaie laguntza. Hori posible ez bada, zerbitzu publikoekin jarriko dira harremanetan (Aldundietako Haur eta Nerabeen Zerbitzuak...), prozesu osoan zehar laguntzeko.

## Salaketa jasotzea

Lehenik eta behin, biktimari jakinaraziko zaio salaketa jartzeko prozesua zein den eta izapide horrek izaten dituen urratsak zeintzuk diren.

Halaber, Babes Agindua eskatzeko aukeraren berri emango zaio eta jakinaraziko zaio etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimentzako abokatu espezifiko baten doako aholkularitza jasotzeko eskubidea duela, bai salaketa jartzeko, bai Babes Aginduaren eskera egiteko eta OGZko edo larrialdi sozialetako koordinazio-zerbitzuko profesional baten laguntza soziala izateko. **94 402 50 50** Biktimak aholkularitza jasotzeko prestutasuna erakusten badu, poliziak beharrezko gestioak egingo ditu eta abokatuak polizia-etxera iristeko behar duen gutxi gorabeherako denbora esango dio biktimari.

Poliziari Babes Agindua eskatuz gero dagokion atestatua edo txostena egin beharko da premiaz, gertakariak egiaztatzeko, eta prozeduraren arabera tramitatu beharko da, delitu jakinen epaiketa azkarra eta berehalakoa egiteko.

Salaketa jasotzerakoan kontuan izan beharko da biktimaren egoera emozionala zein den, giro segurua sortzen ahalegindu beharko da eta salaketa polizia batek jaso beharko du, toki seguru eta pribatuan, inork ez eteteko eta biktimaren pribatutasuna gordetzeko.

Halaber, beharrezko neurri guztiak hartuko dira biktimaren eta familiaren edo haiekin dauden pertsonen eta erasotzailearen eta bere familiaren edo berarekin dauden pertsonen artean kontakturik ez dagoela bermatzeko.

Salaketarekin eta/edo biktimaren aitorpenarekin, aurreko jarduketetan ateratako datuekin batera, ikerketarako beharrezkoak diren datuak osatuko dira, hala nola biktimaren egoera pertsonalarekin eta erasotzailearekin duen harremanarekin lotutako alderdiak, erasoarekin eta indarkeriaren historiarekin lotutako alderdiak, ikusi duten testiguak edo erreferentziakoak, etab.

Nolanahi ere, biktimaren aitorpena behar den aldiro etengo da eta, are, atzeratu ere egingo da, biktima aitorpena egiteko egoeran ez badago. Salaketa amaitu ondoren, biktimari kopia bat emango zaio.

Haurren jokabidearen inguruko informazioa jaso behar da eta indarkeriaren biktima/testigu izan diren argitzen duen informazioa. Izan ere, larrigarria izateaz gain, erabakigarria izan daiteke babesa eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jasotzea.

Desgaitasuna duten biktimen ikerketa eta salaketa egiterakoan, beharrezkoa da indarkeria pasiboa ere kontuan izatea, esaterako, abandonu fisikoak, gehiegizko medikamentuak edo medikamentu desegokiak ematea eta abandonu emozionala.

Biktima immigranteen edo emakumeentzako tradizio kaltegarriak izan ditzaketen kultur komunitateetako biktimen ikerketan garrantzitsua izango da emakumeen genitalen mutilazioen balizko kasuak eta behartutako ezkontzak ikertzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuekin.

Hautemate goiztiarrerako funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeria dagoen testuinguruetan bizi diren adingabeak zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratu txar mota eta/edo sexu-abusuak pairatzen aritu daitezkeela kontuan izatea; izan ere, ingurune horietan biktimak ezkutuan egon daitezke eta ikusezinak izan. Horregatik uneoro izan behar dira kontuan ikerketan eta atestatuan.

## Biktimentzako laguntza

Biktimak segurtasuna arriskuan ikusten badu edo hori eskatzen badu, bera eta bere tutoretzapean edo zaintzapean , dauden adingabeak emakumeak proposatutako beste etxe edo toki batera eramango dira

(senideen etxea, lagunena, etab.). Halaber, beharrezkoa baldin bada, biktimari etxera lagunduko zaio arropa eta beharrezko beste objektuak hartzeko.

Biktima larrialdietako mediku-zerbitzura, gizarte-zerbitzuetara, etxera edo beste norabait eraman behar bada, ahal den heinean, bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizialean eramango da.

Bai biktimarentzako arretan bai balizko lekualdatzeetan, polizia-taldean gutxienez emakume bat egon dadin ahaleginduko da.

## Informazioa eta beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Biktimari bere eskubideen eta bere zaintzapean edo tutoretzapean dauden pertsonen eskubideen berri emango zaio idatziz, bai eta laguntzeko baliabideen berri ere: baliabide ekonomikoak, psikologikoak, etxebizitzarenak eta lege-aholkularitza. Zerbitzu horien telefono-zenbakiak emango zaizkio. Informazio guztia idatziz emango zaio, material dibulgatzaileen bidez edo esku-orrien bidez.

Nolanahi ere, biktimari ematen zaion informazioa edozein dela ere, kasua (biktima baimena mean ostean) Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemara igorriko da Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen bidez, eta erakundeen artean adostutako informazioa trukatzeko euskarriak erabiliko dira, betiere Datuen Babeserako Legearen arabera.

## Ikerketa eta atestatua egitea

Ahalik eta azkarren eta zehatzen egingo dira arau-haustea egon dela eta egilea erantzulea dela egiaztatzeko beharrezkoak diren uneko egiaztaketak eta ikerketa: begietako ikuskapena, lekukoak , biktimari argazkiak ateratzea bere baimenarekin, etab.

Biktimari jakinaraziko zaio ikertzen ari diren gertakariekin zerikusia duten efektu eta elementuak ematea garrantzitsua dela gertatutakoa argitzeko.

Tentuz eta prebentzioz, ustezko erasotzaileak dituen lizentzia edo baimenen inguruko informazioa jasoko da, beharrezko neurriak hartu ahal izateko. Halaber egiaztatuko da ea aurretik biktimarekin edo ustezko erasotzailearekin zerikusia duten poliziaren esku hartzeak eta/edo salaketak dauden, eta ea erasotzaileak aurrekari penalak dituen.

Gainera, Autoritate Judizialak aurretik pertsona horientzako babes-neurriak ezarri ote dituen ere egiaztatu beharko da.

Atestatuan epaitegiari jakinarazteko beharrezko informazio guztia erantsiko da: aurrekariak, begizko ikuskapenen diligentziak, babes-aginduaren eskaera, egoeraren arriskuaren balorazioaren diligentzia, aitorpenak, etab.

## Arriskuaren balorazioa eta babes-neurriak

Egindako arriskuaren balorazioaren emaitzaren arabera komenigarria bada, biktima babesteko neurri zehatzak hartuko dira.

Arriskuaren balorazioa prozesu iraunkorra da eta arrisku-adierazle berriak identifikatzeko aukera ematen duen informazioa dagoenean edo aurretik kontuan hartutako batzuk baztertu daitezkeenean eguneratuko da. Horregatik, arrisku maila biktimak une jakin batean duen egoeraren irudia da.

Egun, Ertzaintzak lau arrisku maila ditu ezarrita:

- Oinarrizko arrisku maila: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera txikia da.
- Arrisku maila neurritsua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera dago.
- Arrisku maila altua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera handia da.
- Arrisku maila berezia: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera oso handia da.

Arrisku mailaren arabera, Ertzaintzak hainbat babes-neurri ezartzen ditu, besteak beste:

Erasotzailearen zaintza eta jarraipena egitea, eta modu eraginkor eta operatiboan egin badaiteke, organo judizialaren zerbitzura dauden hurbiletik hautemateko sistemak erabiliko dira erasotzaileari ezartzen zaizkion urruntze-neurriak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Errutinen inguruko prebentzio-jarduerak, telefono bidezko egiaztapenak eta ausazko bisitak, lekualdatzeak, babeserako aldizkako laguntza eta operatiboak.

Biktimen babes etengabea. Halaber, etxean tratu txarrak jasan dituzten biktima guztiei babes-neurri hauek eskainiko zaizkie, haiek errefusatu ezean:

Autobabeserako neurriei buruzko prestakuntza eta materiala.

Eguneko 24 orduetan biktimaren eta polizia-zerbitzuen arteko komunikazio zuzena eta berehalakoa ahalbidetzen duten gailuak.

Sexu-erasoen kasuan, biktimak jasandako erasoa aztertu ondoren, beste eraso bat gerta daitekeela pentsaraz dezaketen inguruabarrak edo elementuak daudenean, eta lortu nahi den babes-helburuarekiko neurria proportzionala denean, biktimari telefono bat emateko aukera eskainiko zaio, polizia-unitateekin zuzeneko lotura gisa, larrialdiren bat gertatuz gero

“Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedientea” dokumentuan jasotzen diren babes-neurriak eraginkorrak izateko, biktimaren eta erasotzaileen argazkiak atera ahal izango dira. Horretarako, biktimari “Datu pertsonalen erabilera baimentzeko akta” emango zaio sinatzeko, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak soilik erabiltzeko baimena eman dezan. Biktimaren baimena izan ondoren, biktimaren eta erasotzailearen argazki eguneratuak eskatuko zaizkio. Espedientean dagoen poliziaren fitxa biktimaren eta erasotzaileen irudiekin eta oinarrizko datuekin inprimatu ahal izango da, eta informazio osagarria gehitu; maiz egoten diren lekuak, lan-jarduera, aktibo dauden poliziaren neurriak, etab.

## Udaltzaingoa

Euskadiko polizia Ertzaintzak eta Udaltzaingoak osatzen dute eta Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistema Arautzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak eta Euskadiko Polizia Legea bosgarrenez moldatzeko ekainaren 27ko 7/2019 Legeak arautzen dute. Tokiko erregimenaren oinarrien lege arautzaileak 25. artikuluan ezartzen ditu udalerrien eskumenak, eta horietan udaltzaingoak zeregin nabarmena du.

Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistemak, segurtasun publikoan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak eta udalerriek Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren jarduketa koordinatu eta bateratua errazten dute, haien

eskumenen arloan eta bakoitzaren gaitasunen barruan sortzen diren arazoak modu eraginkorragoan jorratzeko.

Berango, Gorliz, Plentzia eta Sopelako Udaltzaingoak udalaren mende daude.

Zerbitzu orokor hauek egiten dituzte:

- ✓ Autoritateen, eraikinen, instalazioen, udal-jabetzen eta espazio publikoen zaintza eta babesa.
- ✓ Bideko segurtasuna, sorospena istripuetan eta hondamendietan, legearen arabera.
- ✓ Araudiak, aginduak, bandoak eta udal ebazpenak indarrean dagoen araudiaren arabera betetzen direla bermatzea.
- ✓ Ingurumenaren eta ingurumenaren babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzea.
- ✓ Delituen biktimentzako laguntza eta babesa.
- ✓ Delituen ikerketetan epaileei, auzitegiei eta Fiskaltza Ministerioari laguntzea.
- ✓ Delituen prebentzioa.
- ✓ Manifestazioetan babestea eta giza pilaketetan ordena mantentzen laguntzea, beharrezkoa bada.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetan Ertzaintzak du arretarako eskumen nagusia, baita zaintza- eta babes-jarduketetarako ere. Hala ere, Udaltzaingoak zeregin garrantzitsuak egiten ditu:

- ✓ Indarkeria matxistaren biktimek hala eskatzen dutenean premiazko arreta eskaintzea.
- ✓ Hainbat gizarte-baliabiderekin koordinatzea. Herritarrengandik hurbil dauden heinean, tokiko errealitatearen inguruan duten oinarrizko ezagutzaren ekarpen garrantzitsua egiten dute.
- ✓ Indarkeriaren prebentzioa.
- ✓ Kasuak detektatzea
- ✓ Urruntze-neurriak betetzen diren kontrolatzea.
- ✓ Biktimen babesa.
- ✓ Komunitatean dauden gizarte-baliabideen informazioa ematea.
- ✓ Udaleko gizarte-zerbitzuekin koordinatzea.

Indarkeria-egoeretarako **sarbideak**:

- Telefonoz. Tokian bertan esku hartzen da, erasoa gertatzen ari den unean bertan.
- Emakumea polizia-etxera joaten da erasoa gertatzen ari ez den unean.
- Hirugarren pertsona batek kasu baten berri ematen du, erasoa gertatzen ari ez den unean.

## Prebentzio-jarduketak

Lehenik eta behin, prebentzio-jarduketak hautemateko eta prebenitzeko jarduketetara bideratu behar dira, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak eman ez daitezen.

## Urgentea, tokian bertan

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko (arreta berezia jarri behar da haur eta nerabeengan).

Ertzaintzari jakinaraziko dio eta iritsi arte emakumea eta bere tutoretzapean edo zaintzapean dauden seme-alabak artatzeaz arduratuko da, beharrezkoa izanez gero erasotzailea atxilotuko du eta atestatua osatzen lagunduko duen informazio guztia jasoko du. Esku-hartze horren ostean, agerraldiaren akta egingo da Ertzaintzaren atestatuan sartzeko.

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak baditugu, telefonoz harremanetan jarriko gara dagokion mediku-zerbitzuarekin, dagokion arretarako sarbidea izateko. Abisua emango zaie prest egon daitezen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

Berriki gertatutako **sexu-erasoa** bada (biktimak salatu baino 72 ordu lehenago gertatu dena), Ertzaintzari dagokio arreta; hortaz, jakinarazi eta haiekin koordinatu beharko da hasierako jarduketetan. Biktima gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura eramango da. Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira. Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko.

Nolanahi ere, auzi-medikuari gertakariaren inguruan dauden datu guztiak emango dizkiogu.

Emakumearen tutoretzapean edo zaintzapean adingabeak badaude, legeak biktimatzat hartuko ditu eta arreta eta babes egokia jaso beharko dute. Emakumea haien zaintzaz arduratu ezin den unerako biktimak esandako pertsonei edo senideei eskatuko zaie laguntza. Hori posible ez bada, zerbitzu publikoekin jarriko dira harremanetan (Aldundietako Haur eta Nerabeen Zerbitzuak...) prozesu osoan zehar laguntzeko.

## Beste baliabide batzuek eskatutako arreta

- Gizarte-zerbitzuek eskatuta jardutea

Udaltzaingoaren funtzioen artean dago Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatzen dutenean jardutea, kasu hauetan:

- Biktima zaintzea urruntze-agindua lortu bitartean.
- Emakumeari bere etxera laguntzea. Emakumea berriro biktimizatzea ekiditeko, udaltzainak kalez jantzita joaten ahaleginduko dira.
- Hala badagokio, biktimaren etxera poliziaren bereizgarririk gabe joatea Gizarte Zerbitzuekin duen hitzordua entregatzeko.
- Epaitegitik urruntze-agindua jasotzen denean, kasua udaleko gizarte-zerbitzuek ere artatzen ote duten egiaztatuko da. Artatzen ez badute, jakinarazi egingo zaie koordinatzeko.

- Ertzaintzak eskatuta jardutea

Babes-agindua baldin badago eta Ertzaintzak eskatuz gero, Udaltzaingoak biktima babesten eta zaintzen lagundu ahal izango du, koordinatutako jarduketaren bidez.

Ertzaintzak baloratuko du emakumeak zer nolako arriskua duen eta neurri egokiak erabakiko ditu. Udaltzaingoak, aldiz, babesten nork parte hartuko duen eta nork ez erabakiko du eta hainbat babes-neurri jarriko ditu martxan: emakumeari ausazko bisitak egitea, norabait joaten laguntzea, babeserako operazio puntualak.

## Aurrez aurreko arreta polizia-etxean

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak badaude, aurreko atalean adierazi den moduan jardun beharko da.

Biktimak ez badu lesio fisikorik, honako hau jakinaraziko zaio:

Salaketa jarri dezakeela, Babes Agindua eskatu, eta eskubide hauek dituela:

- Doako lege-laguntza.
- Prozesu penalaren parte izateko eskubidea.
- Babes pertsonalerako laguntzak eskatzekoa.
- Banaketa zibilerako aldi baterako neurriak eskatzekoa.

Biktimari bere eskubideen berri emango zaio idatziz, bai eta laguntzeko baliabideen berri ere: baliabide ekonomikoak, psikologikoak, etxebizitzarenak eta lege-aholkularitza. Zerbitzu horien telefono-zenbakiak emango zaizkio. Informazio guztia idatziz emango zaio, material dibulgatzaileen bidez edo esku-orrien bidez.

Edozein prozesu-aldaketaren faseak eta erritmoak ebaluatzea ona da emakumea bizitzen ari den unera egokitutako ekintzen proposamenak egiteko:

- **Salaketa jarri nahi badu**

Emakumeari azalduko zaio esku-hartzearen titulartasun nagusia Ertzaintzarena dela, eta Ertzaintzaren polizia-etxera deituko da kasuaren berri emateko. Itxaron bitartean Udaltzaingoak bere zerbitzuak eskainiko dizkio. Hauek dira zerbitzuak:

- Salaketa jartzearen erabilgarritasunaren eta egin beharreko urratsen informazioa ematea.

- Gertakarien txostena egitea, dagokion atestatua egiteko Ertzaintzari bidaltzeko.

- Laguntza-zerbitzuen berri ematea biktimari.

- Ertzaintzak biktimaren berririk ez duela ikusiz gero, Udaltzaingoak behar dituen datuak emango dizkio (babes-aginduak, etxebizitzak, etab.).

- Jarduketa guztia zehatz erregistratuko da eta esku-hartzean jasotako informazioa Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie, biktimak baimena sinatu ostean, esku-hartzearekin eta koordinazioarekin jarrai dezaten.

Emakumearen segurtasuna bermatzeko, bere arreta profesionalean ez dauden pertsonei ez zaie bere zuzeneko edo zeharkako jarduketaren edo bera dagoen tokiaren informaziorik emango, ezta senideei, bizilagunei edo lagunei ere.

- **Salaketa jarri nahi ez badu**

Emakumeak salaketa jarri nahi ez badu, bere eskubideen eta udal-baliabideen inguruan informatu ondoren, kasua Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemara bideratuko da bere udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez.

Kasu guztietan, *datu pertsonalak erabiltzeko baimena* sinatzeko eskatuko zaio.

- Egoera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren ordutegiaren barruan gertatzen bada (astelehenetik ostiralera 08:00-15:00), hara bideratuko da.

- Egoera zerbitzu horien arretarako ordutegitik kanpo gertatzen bada eta premiazko ostatua beharrezkoa bada edo familiako etxebizitza premiaz uzteko beharra badago, emakumea berak esaten duen etxera eramango da edo Larrialdietarako Koordinaziorako Foru Zerbitzuarekin kontaktatuko da.

## Berdintasun Zerbitzuaren Jarduketa

Emakumeen aurkako indarkeria da sexuagatiko diskriminazioaren adierazpenik krudelena, eta, horregatik, hainbat erakunderen Berdintasun Zerbitzuen jarduketarako sail espezifikoa da. Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatearen Berdintasun Zerbitzuaren bidez, tokiko erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko politikak sustatu, koordinatu, jarraipena egin eta ebaluatzen dituzte, eta, zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren ingurukoak.

Halaber, politika horiek indartu egiten dute indarkeria hori jasaten duten emakumeen arretan eskumena duten zerbitzuekin egiten den lana. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4. artikuluak ezartzen du Euskadiko Autonomia erkidegoko udalei dagokiela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak legeak xedatzen duenaren arabera gauzatzea.

Bestalde, Genero indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 19.7 artikuluak honako hau jasotzen du: *"Berdintasunerako organismoek egiten diren programak eta ekintzak bideratu eta baloratuko dituzte eta hobetzeko gomendioak igorri"*. Hala, protokolo hau praktikan jartzeko koordinazioa dagokie, bai eta ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea ere. Koordinazio Teknikoko Mahaiaren eta Koordinazio Estrategikoko Mahaiaren bidez islatzen da bere lidergoa. Mahai horiek, besteak beste, erakundeen arteko koordinazioa egiten dute eta erakundeen erantzukizunak eta protokolo honetan jasotako neurriak betetzea sustatzen dute.

Gainera, Berdintasun Zerbitzuak emakumeen aurkako indarkeria ulertzea sustatzen du, biktima guztiak artatzeko mekanismoak ezartzen ditu, baliabideetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia txertatzen du eta ahalduntzeko eta normalizatzeko prozesuaren beharra adierazten du.

Halaber, informatzeko, sentsibilizatzeko eta zabaltzeko ekintzak antolatzen ditu (esaterako, azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, edo jaietan), eta prestakuntzak egiten ditu politikarientzat, teknikarientzat, eta gizarte-langileentzat.

Halaber, bere funtzioen artean daude Uribe Kostako emakumeen ahalduntze-eskola koordinatzea (espazio hori ezinbestekoa da prebentziorako, hautemateko, laguntzeko eta osatzeko) eta beste erakunde (Emakunde, Eudel, etab.) eta sare (Berdinsarea, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea, etab.) batzuekin koordinatzea.

Bere funtzioen artean ez dagoen arren indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzeneko arreta eskaintzea, udalerrian kasuak hautemateko "puntua" da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lanean erreferentziazkoa delako bai politikarientzat, bai gizarte arloko langileentzat.

Emakumeren batek Berdintasun Zerbitzuari laguntza eskatuz gero, bai zuzenean, bai elkarteen eta/edo mugimendu feministaren bidez, lehen harrera-elkarrizketa egingo zaio (aurrez aurre edo telefonoz), eta bere egungo egoeraren eta eskariaren inguruko informazioa jasoko da, informazioa eman ahal izateko eta baliabide eta zerbitzu egokiagoetara sartu ahal izateko. Arreta berezia jarriko da udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemara sartzeko. Horretarako, aldez aurretik, emakumeak datuak bildu eta beste erakundeei uzteko baimena eman beharko du, erakundeen artean koordinatzeko.

Protokoloari dagokionez egiteko nagusia protokoloa ezar dadin sustatzea da, eta hauek dira zeregin nagusiak:

## Koordinazio teknikorako taldea koordinatzea

- Sinatu duten eragileen arteko koordinaziorako dinamikak sustatzea eta koordinazioa hobetzea.
- Sinatu duten eragileek Protokolo honen edukiaren eta Mankomunitateko eta Lurralde Historikoko baliabideen inguruko informazio eguneratuta dutela bermatzea.
- Sinatu duten eragileei kontsultatuta gai-zerrenda egitea, eta taldeko bileretan akta dinamizatu eta jasotzea.
- Taldearen eta Mankomunitateko beste eragile batzuen arteko harreman eta lankidetza egonkorra sustatzea, bizitza-proiektuak garatzeko edota emakumeak ahalduntzeko ekintzak martxan jartzen, horiek goiz antzematen eta prebenitzen lagun dezaten.

## Koordinazio estrategikorako taldea koordinatzea

- Mankomunitatean arlo horretaz arduratzen den pertsonarekin lankidetzan aritzea gai-zerrenda egiteko, bilerak dinamizatzea eta mahaiko bileren aktak jasotzea.
- Protokoloaren jarraipenaren urteko memoria egitea, eta Koordinazio Estrategikorako Taldeari aurkeztea.
- Urteko Ekintza Planerako proposamena egitea eta Koordinazio Estrategikorako Taldeari aurkeztea onartzeko, protokoloa ezarri eta etengabe hobetzen dela bermatzeko ekintzak eta/edo neurriak abian jartzeko.

## Datuen bilketa eta azterketa

- Protokoloa sinatzen duten eragile guztien datuak biltzea.
- Protokoloaren parte diren zerbitzu eta erakundeek igorritako datuen azterketa egitea urtero.

## Hedapena eta prestakuntza

- Protokolo honen edukiak hedatzea mankomunitateko langileen artean, sinatu duten eragileen artean eta haien langileen artean.
- Mankomunitateko beste erakunde, zerbitzu eta elkarteetan hedatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren larritasuna eta iraunkortasuna ezagutaraztea eta sentsibilizatzea.
- Sinatu duten eragileek dituzten prestakuntzaren beharrak identifikatzea eta ezagutzak eguneratzea, baita eragile horien lankidetzarekin arreta eta koordinazioa etengabe hobetzeko urteko proposamena egitea ere.

## Ezarpenaren ebaluazioa

Protokoloa etengabe hobetzeko, urteko jarraipena egiteaz gain, jarduketa ezinbestekoa da Protokoloa Ebaluatzeko Unitatearen arduradun gisa. Funtsean, kontuak emateko prozesuak sustatzen ditu, Uribe Kostako Mankomunitateko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren fenomenoaren bilakaera aztertzen du eta indarkeria horren biktimentzat koordinatutako arretan hobekuntzak egiten ditu.

## **Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua**

Feministen elkarteak eta/edo emakumeenak funtsezkoak dira hautemateko, sentsibilizatzeko edo ahalduntzeko. Eta horregatik lankidetza ere funtsezkoa da. Uribe Kostan koordinatutako lan-ibilbide luzea

dago Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen Parte Hartzerako Kontseiluaren artean. Horregatik, protokoloaren rolak eta funtzioak garatzeko erabil ditzaketen lankidetzarako eta komunikaziorako mekanismoak dituzte.

Uribe Kostako Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua da berdintasun-politiken arloan herritarrek parte hartzeko duten bidea. Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietako emakumeek banaka edo emakumeen elkarteen bidez har dezakete parte bertan.

Mankomunitateko kontseilua 2006ko abenduan sortu zen. Parte hartzeko eta kontsultarako espazioa da, ez erabakiak hartzeko. Hauek dira helburuak:

- ✓ Mankomunitateko elkarteak eta emakumeak biltzeko eta trukatzeko espazioa eskaintzea.
- ✓ Uribe Kostako mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietako elkarteek eta emakumeek parte hartzeko modua finkatzea.
- ✓ Berdintasun Zerbitzuaren, emakumeen eta emakumeen elkarteen artean koordinatzeko eta informazioa trukatzeko tresna ezartzea.

Kontseilua osatzen duten emakumeen eta elkarteen jarduketa nagusiak hauek dira:

## Sentsibilizazioa

Kontseilua osatzen duten emakumeek eta elkarteek indarkeria matxistaren, emakumeen eskubideen eta oro har herritarren eta zehazki Uribe Kostako Mankomunitatean bizi diren emakumeen arteko berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko funtsezko lana egiten dute.

## Prestakuntza

Mankomunitateko emakumeen artean prestakuntzarako ekimenak sustatzen dituzte, eta haiek dituzten eskubideen eta gaitasunen ezagutza handiagoa sustatzen dute.

## Hautematea eta bideratzea

Hurbiltasun eta irisgarritasunagatik, gaitasun berezia dute kasuak hautemateko eta arreta profesionala eman dezaketen zerbitzu eta baliabideetara bideratzeko.

Hautemandako egoerarentzat zerbitzurik egokiena zein izan daitekeen zalantza izanez gero, Parte Hartzeko Kontseiluak Berdintasun Zerbitzuari jakinaraziko dio kasua, eta zerbitzuak lehen hurbilpena egingo du, egokienak diren zerbitzuetara bideratzeko.

## Ahizpatasuna eta ahalduntzea

Emakumeei laguntzeko erakundeen funtsezko aliatuak dira Uribe Kostako indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei eskaintzeko prozesuetan emakumeen arteko ahizpatasuna eta ahalduntze indibidual eta kolektiboa funtsezkoak izatea. Izan ere, horrek balio erantsia ematen dio erakundeen erantzunari.

## Hobetzeko proposamena

Uribe Kostako Mankomunitatean indarkeria matxista jasan duten emakumeen esperientziatik, Kontseiluko emakumeek eta elkarteek protokoloaren funtzionamenduaren jarraipena egin ahal izango dute eta Berdintasun Zerbitzuari hobetzeko proposamenak erakutsi.

Berdintasun Zerbitzuak ziurtatuko du Kontseiluak protokolo honen, jarraipen-txostenen eta urteko lan-planen edukia eguneratua izatea.

Jarraipen-funtzioak eta hobetzeko proposamenak betetzeko, urtean bilera monografiko bat egingo da Parte Hartzeko Kontseiluaren eta Berdintasun Zerbitzuaren artean. Bilera horretan, protokoloaren funtzionamenduaren urteko txostena aurkeztu eta jarraipenaren emaitzak eta hobetzeko proposamenak jasoko dira.

## 10. Erakundeen arteko koordinazioa

Dokumentu honetan lortutako akordioak modu eraginkorrean aplikatzeko, komeni da koordinaziorako espazio egonkorrak izatea. Espazio horietan sinatu duten erakundeen artean lan egin ahal izango da erronkarik edo koordinaziorako korapilorik handienak dituzten kasuak lantzeko. Halaber, zailtasunen inguruan gogoeta egin eta irtenbideak identifikatu ahal izango dira, prestakuntza eta ezagutzak berrelikatu, informazio eta erregistroak partekatu, hobetzeko proposamenak egin, neurriak onartu, jarduketak edo jarduteko ildoak berriro diseinatu... Azken finean, protokolo honen oinarrian dauden printzipioak eta ikuspegiak bermatzeko jarduketa guztiak.

Horretarako, koordinaziorako bi espazio egonkor finkatu dira. Koordinazio Teknikorako Batzordea eta Koordinazio Estrategikorako Batzordea.
Tratamendu fokalizatua behar duten gai espezifiko edo sektorialei heltzeko, lantalde zehatzak eta aldi baterakoak sortu ahal izango dira, eta koordinaziorako batzorde iraunkorrei erantzun eta informatuko diete beti.

### Koordinazio Teknikoko Batzordea

Hitzarmen hau sinatu duten erakundeen ordezkari diren eta martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera erantzukizuna duten teknikariek osatzen dute. Lege horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen du, eta indarkeria matxista-egoeran dauden emakumeei, haurrei eta nerabeei eta haien seme-alabei erantzuna emateko ardura du.

| Gizarte Zerbitzuak | Osasuna | Segurtasuna | Berdintasuna |
|---|---|---|---|
| • Uribe Kostako Mankomunitatearen Gizarte Zerbitzuak | • Uribeko ESI | • Gorliz, Plentzia eta Sopelako Udaltzaingoak<br>• Getxoko Ertzainetxea | • Uribe Kostako Berdintasun Zerbitzua, dinamizatzeko eta aholkatzeko. |

Batzordea Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak dinamizatuko du. Gutxienez, sei hilean behin egingo da ohiko bilera, eta, beharrezkotzat jotzen den guztietan, ezohiko bilera egingo da.

Osatzen duten pertsonek haien erakundea ordezkatu beharko dute, gaiaren inguruan ezagutza nahikoak izan eta sor daitezkeen konpromisoak hartzeko beharrezko gaitasunak izan. Halaber, Protokoloaren edukiak, koordinaziorako espazioetan jorratzen diren gaiak eta haien erakundeetan hartutako erabakiak jakinarazi beharko dituzte, ezarri ahal izateko. Koordinazio Teknikoko Batzordeak funtzio hauek ditu:

a) Zailtasun handiagoak dituzten edo trabak izan diren kasuetarako irtenbideak aztertu eta bilatzea.

b) Koordinazioa bermatzeko eta hobetzeko, eta jarduteko protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak proposatzea.

c) Sinatu duten aldeen artean jarduteko proposamen bateratuak egitea, bai eta protokolo honen xedearen arloan hainbat baliabideri eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzea ere.

d) Jarduteko protokoloaren edukiak protokoloa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen berrietara edo baldintzetara egokitzeko proposamenak egitea.

e) Mahai teknikoaren edo indarkeria pairatu duten emakumeen arretan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-beharrak detektatzea.

f) Erakunde bakoitzean garatutako protokoloaren eta esku-hartze profesionalaren funtzionamendua ebaluatzea.

g) Datuak jasotzea eta berdintasun-teknikariari bidaltzea. Jaso behar diren datu motak koordinaziorako mahaiak zehaztuko ditu.

h) Jarduteko protokoloan ezarritako jarraibideak betetzen ez direlako kexak edo jazoerak jasotzea eta, hala badagokio, zuzentzeko neurriak proposatzea.

i) Bere jarduketa-arloan esleitzen zaizkion beste edozein.

Batzorde hori dinamizatzeko, Berdintasun Zerbitzua arduratuko da eguneko gai-zerrenda proposatzeaz, deialdiak eta bileren aktak egiteaz, eta informazioa zirkulazioan dagoela eta kideentzat eskuragarri dagoela bermatzeaz. Zerbitzu hori arduratuko da parte-hartzeko bitartekoak sortzeaz eta esku hartzen duten aldeen koordinazioaz; bestalde, batzordea protokoloak ezarritakoaren arabera bilduko dela bermatuko du.

Urtero, memoria bat egingo du eta sinatu duen erakunde bakoitzari aurkeztuko dio. Bertan, egindako jarduketak edo Koordinazio Teknikorako Batzordean hartutako erabakiak jasoko dira, urtean zehar Uribe Kostan erregistratutako intzidentzien datuekin batera. Bere jardueraren garapena ere ebaluatuko du urtero.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **KOORDINAZIO TEKNIKOKO BATZORDEA**  | **Partaideak:** Indarkeria matxistaren kasu baten aurrean erantzukizun publikoa duten eta zuzenean esku hartzen duten teknikariak. | **Helburua:** Koordinazioa hobetzeko eta jarduteko protokoloa modu eraginkorrean aplikatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak proposatzea. | Gutxienez sei hilean behin bilduko da mahaia. Berdintasun Zerbitzuko dinamizatzailea. |

## Koordinazio Estrategikoko Batzordea

Arretan zuzenean esku hartzen duten autoritateek edo sinatu duten erakundeetako ordezkari arduradunak osatzen dute, eta Berdintasun Zerbitzuak koordinatzen du. Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, edo kideren batek hala eskatutako ezohiko bileran.

| Uribe Kostako Mankomunitatea | Gizarte Zerbitzuak | Osasuna | Segurtasuna | Berdintasuna |
|---|---|---|---|---|
| • Mankomunitateko Presidentea eta/edo Mankomunitateko Zinegotzi Ordezkaria<br>• 7 udalerrietako alkatetzak | • Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako autoritateak | • Uribeko ESIko autoritateak | • Udaltzainetako autoritateak<br>• Getxoko ertzain-etxeko autoritateak | • Uribe Kostako Berdintasun Zerbitzua, dinamizatzeko eta aholkatzeko. |

Kideek erabakiak hartzeko gaitasuna izan beharko dute hitzarmenetako aldaketen inguruan, protokolo honetako konpromisoen inguruan, jarduketaren inguruan edo indarkeria matxistaren arloko koordinazioaren inguruan. Koordinazio Teknikoko Batzordeak egindako akordioak gauzatzen direla bermatu beharko dute.

Koordinazio Estrategikoko Batzordeak funtzio hauek ditu:

a) Urteko lan-plana onartzea, komenigarriak diren konpromisoekin eta neurriekin, koordinazioa hobetzeko eta protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak proposatzeko.

b) Sinatu duten aldeen artean jarduteko proposamen bateratuak onartzea, bai eta protokolo honen xedearen arloan hainbat baliabideri eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzea ere.

c) Jarduteko protokoloaren edukiak protokoloa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen berrietara edo baldintzetara egokitzeko proposamenak onartzea.

d) Ebaluazioak eta urteko txostena kontuan izanik protokoloaren xedearekin lotuta dauden hitzarmenak onartzea.

e) Bere jarduketa-arloan esleitzen zaizkion beste edozein.

Berdintasun Zerbitzua arduratuko da urteko memoria egin eta erakunde bakoitzeko arduradunari igortzeaz, memoria horrek jasoko ditu protokoloaren ezarpena, mankomunitateko indarkeriaren inguruko datuak, batzorde teknikoaren balorazioa eta hobetzeko proposamenak eta Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua. Koordinazio Estrategikorako Batzordearen bileren deialdiak eta aktak dinamizatzeko eta aholkatzeko ardura ere izango du. Zerbitzu hori arduratuko da parte-hartzeko bitartekoak sortzeaz eta esku hartzen duten aldeen koordinazioaz; bestalde, batzordea protokoloak ezarritakoaren arabera bildu eta funtzioak betetzen dituela bermatuko du.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **KOORDINAZIO ESTRATEGIKORAKO BATZORDEA**<br> | **Parte-hartzaileak:** udaletako politikariak, Mankomunitateko presidentetza, Berdintasun Zerbitzua eta Ertzaintzako eta Osakidetzako arduraduna. | **Helburua:** Komenigarriak diren konpromisoak eta neurriak adostu eta onartzea, koordinazioa hobetzeko eta jarduteko protokoloa modu eraginkorrean aplikatzen dela bermatzeko jarduketa egokiak sortzea. | Urtean bitan |

## Lankidetzak

Protokolo honen arabera, ezinbestekoa da lankidetza-harremanak ezartzea eta sendotzea indarkeria matxistaren biktimek indarkeriarik gabeko bizitza-proiektuak garatu ahal izan ditzaten laguntzen duten beste eremu edo sistema publiko edo pribatu batzuetako eragileekin.

Justiziaren arloa hainbat eragilek osatzen dute eta funtsezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeen arreta-prozesuetan. Arlo horretan jarduten duten eragileek protokoloa sinatu ez duten arren, Berdintasun Zerbitzuaren ardura izango da egokitutako lankidetza-formatuak eta protokoloaren helburuak lortzen laguntzen dutenak identifikatzeko lan egitea.

Justiziaren arloko eragileak:




Gainera, prebentzioan, hautematean, sentsibilizazioan edo indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen ahalduntzean jarduten duten eragileen lanaren balioa azpimarratzen du, eta eragile horien artean lankidetza egoteak duen garrantzia nabarmentzen du.

Protokoloa sinatu ez duten eragile adierazgarriak dira eta hautemateko, prebentziorako, sentsibilizaziorako, ahalduntzerako eta erreparaziorako prozesuetan hauek esku hartzen dute:

- Elkarte feministek eta emakumeen elkarteak
- Uribeko Kostako emakumeen ahalduntze-eskolak
- Berritzegune-Ikastetxeak.
- Uribe Kostako Behargintzak
- Tartekari Sareak
- Hirugarren Sektoreko Erakundeek (desgaitasuna, buruko-osasuna, migrazioak, etab.).
- Udalerrian emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko lanean aritzen diren eta kolaboratzen duten beste elkarte edo eragileak.

Protokolo honen helburuetako bat da emakumeek pairatzen duten indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea, bai eta emakume horiek laguntzea eta ahalduntzea ere. Alor horietan, udalerrietako elkarte feministek eta/edo emakumeen elkarteek oso zeregin garrantzitsua dute, batez ere laguntza-zirkuiturako zubi gisa eta emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duen espazio gisa. Udalerri bakoitzeko elkarteen ehundurak dituen ezaugarri desberdinak direla eta, komunikatzeko bideak ezarriko dira eta lankidetza funtsezkoa izango da horretarako.

Sinatu ez duten beste eragile adierazgarri batzuekin lankidetza bermatzeko, Berdintasun Zerbitzua komunikazio-bideak zabaltzeaz arduratuko da eta beharrezkoak diren sektoreko eta sektoreen arteko bilerak egingo ditu, protokoloa ezagutzeko, lankidetzarako ekintzak identifikatzeko eta emandako arretan hobetzeko arloak hautemateko.

Bilera horien xedea ez da inolaz ere izango sinatu duen eragileren bat ordezkatzea, bakoitzak bere egiturak edo koordinaziorako bideak baititu.
Haien aukeretara egokitutako komunikatzeko eta lankidetzarako formulak bilatuko dira (bilera puntualak, e-mail informatiboak, etab.). Harremana pixkanaka sor daiteke, eta batzuk lehenetsi edo interakzioan hainbat formula erabili.

## Koordinazio Bereziko Batzordea

Ezohiko mahaia da, eta mahaiko edozein kidek deitu ahal izango du aurreikuspenak erabat aldatzen dituzten testuinguruak eta bizi-baldintzak sortzen dituzten ezohiko egoeren aurrean, esaterako, berriki izan dugun osasun-krisia eta horren ondorioz hartu diren neurriak. Politikariek edo erabakiak hartzeko gaitasuna duten arduradunek eta teknikariek osatuko dute; Berdintasun Zerbitzuak dinamizatuko du. Mahaiaren azken xedea da indarkeria matxistaren biktimentzako arreta eta babesa eskaintzea edozein egoeraren aurrean.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **KOORDINAZIO BEREZIKO BATZORDEA**  | **Parte-hartzaileak:** udaletako teknikariak eta politikariak, Mankomunitateko presidentetza, Berdintasun Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Ertzaintza eta Osakidetza. | **Helburua:** Ezohiko egoeretarako ezohiko jarduketa-planak adostu eta onartzea, esaterako, Covid-19ak sortutako osasun-krisiaren kasuan, indarkeria matxistaren biktimei edozein egoeraren aurrean arreta eta babesa eskaintzeko. | Ezohiko deialdia. |

# 11. Jarraipena eta ebaluazioa

Berdintasun Zerbitzuko teknikariak arduratuko dira protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduketak sustatzeaz.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula mistoak erabil daitezke: jarduketa aldizka ebaluatzea (urtean behin, esaterako), esku hartzen duten eragileak elkarrizketatzea, gogobetetzearen inguruko inkestak egitea, jarraipenerako adierazleen sistema sortzea, etab. Gainera, urtean zehar Berdintasun Zerbitzuak hautemandako jazoerak edo hobetzeko alderdiak erregistratu ahal izango dira. Horiek Koordinazio Teknikoko Mahaia osatzen duten eragileen jardueratik sortuko dira batik bat.

Berdintasun Zerbitzuak memoria bat egingo du urtero, eta Koordinazio Teknikoko Batzordearekin partekatuko du. Ondoren, sinatu duten erakundeei aurkeztuko die. Egindako jarduketak, Koordinazio Teknikoko Batzordean hartutako erabakiak eta proposamenak jasoko dira bertan, eta urtean zehar jasotako datu kuantitatiboak erregistratuko dira, indarkeriaren inpaktua ezagutu ahal izateko.

Protokoloa etengabe hobetzeko, urteko jarraipena egiteaz gain, funtzionamendua ebaluatu egingo da hiru urtean behin.

Protokoloa etengabe hobetzeko, funtsezko eragile baten laguntza izango du, Emakumeen Parte Hartzerako Kontseiluarena.

## 12. Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua: kontuak ematea, jarraipena eta ebaluazioa

Sinatu duten erakundeek emakumeen aurkako indarkeria-kasuen hautematean, arretan, babesean eta justizian beste instantzia batzuek duten beharrezko zeregina aitortzen dute. Informazio publikora heltzeko eskubidea Europako, estatuko eta erkidegoko hainbat araubidetan aitortu eta jasotzen da[8]. Gardentasunak herritarrek erakundeen ekintzen gainean duten konfiantza, parte-hartzea eta kontrol zuzena ahalbidetzen ditu; hots demokrazia indartzen du.

Beste instantzia horiekin koordinatu ahal izateko, Uribe Kostako Mankomunitateak Emakumeen Parte Hartzerako Kontseilua du, eta bertan protokoloa ezartzearen inguruko kontuak eman behar dira. Berdintasun Zerbitzuak ziurtatuko du Kontseiluak protokolo honen, jarraipen-txostenen eta urteko lan-planen edukia eguneratuta izatea.

Gainera, batzordeko kideak emakumeek zerbitzuetarako sarbidearen eta indarkeria matxistan esku hartzen duten erakundeek eskaintzen duten arretaren inguruan egiten duten balorazioa zuzenean jasotzeko eragile pribilegiatuak dira. Hala, proposamenak egin ditzakete jarduketak eta prozedurak hobetzea ahalbidetzen duten alderdi zehatzen inguruan.

Urtean behin gutxienez, Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak deituta eta dinamizatuta, Emakumeen Parte Hartzerako Kontseiluaren bilera egingo da, kontuak emateko, eta protokolo honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Berdintasun Zerbitzua arduratuko da gero kontseiluaren balorazioa eta proposamena Koordinazio Estrategikoko Batzordeari igortzeaz.

## 13. Berrikuspena eta indarraldia

Protokolo honen iraupena mugagabea izango da. Aldizka berrikusiko du jarraipenaz arduratzen den instantziak eta eranskin moduan txertatuko dira erakundeen arteko koordinazio-batzordeek urtero egiten dituzten akordioak.

Protokolo bizia da, eraikuntza-prozesuan dagoena eta errealitatera egokitzeko gaitasuna duena. Goiko legezko araudi edo konbentzionalen batek protokoloaren edukiari eragingo balio, sinatu duten pertsonek konpromisoa dute berehala egokitzeko.

Dokumentu hau dokumentu bizitzat hartu behar da, eta aldaketa sozialetara eta arauetara egokitzen joango da, betiere sinatu duten erakundeen onarpenarekin.

## 14. Datuen babesa

Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege organikoa betez, datuak biltzeko eta datu horiek hitzarmen hau sinatu duten erakundeei uzteko, besteak beste, betebehar hauek egongo dira:

8 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzkoa.

- Indarkeria matxistaren biktima izan den emakumeari informazio nahikoa eta egokia ematea jasoko diren datuen inguruan, zertarako jasoko diren eta nola gordeko diren azaltzea, eta datu horiek behar bezala erabiltzeko erantzukizuna duen zerbitzua edo pertsona nor den ere esatea.

- Ematen dituen datuak konfidentzialak izango direla eta baimenduta dauden pertsonek eta datuak jasotzeko xedearekin lotura dutenek soilik erabiliko dituztela jakinaraztea.

- Bere datu pertsonalekin lotutako ARCO eskubideen berri ematea (sartzekoa, zuzentzekoa, ezeztatzekoa eta aurka egitekoa).

- Datu horiek beste Administrazio Publikoei edo beste erakunde pribatuei emateko asmoa badago, datuak jasotzeko unean esan beharko zaio emakumeari eta horretarako baimena eman ala ez erabaki ahal izango du. Datuak ezingo dira orokorrean utzi eta biktimak modu argian zehaztu beharko du zer erakunderi ematen dion baimena datuok uzteko.

Sinatu duten erakundeek argi azalduko beharko diete emakumeei baimena ematearen garrantzia; izan ere, horrekin aktibatzen da bere eskura dauden baliabideak lortzeko makinaria, eta, hala, koordinazio eta arreta osoa bermatzen da. Emakumeak baimena ematen badu, instituzioak automatikoki eta atzerapenik izan gabe igorriko die informazioa beste erakundeei. Baimenik ematen ez badu, datuak jaso eta Berdintasun Zerbitzura igorriko dira bereizita, emakumea ez identifikatzeko.

Europar Batasunak urteak daramatza estatu kideei esaten indarkeria matxistaren inguruko datuak jasotzeko; izan ere, datuak sistematikoki jasotzeak, kategoriatan banatzeak eta aldizka argitaratzeak estatu kideek dituzten betebeharren ebaluazioa egitea errazten du. Funtsezkoak dira erakunde publikoen erantzunen neurria, prebalentzia eta eraginkortasuna neurtzeko.

Datuen babeserako araudi erregulatzaileak edo indarrean dagoen beste edozein akordiok ezartzen dutenaz gain, sinatu duten erakundeek indarkeria jasaten duen emakumeen datu pertsonalak protokolo honetan zehaztutakoaren arabera jasotzen badituzte, konpromiso hauek izango dituzte:

- Informatzeko eta datuen tratamendurako baimena emateko sistema ezartzea, sarbideak kontrolatzea eta datu sentiberak direnekin segurtasun handiko neurriak ezartzea.

- Estatistiketarako datuak biltzeko sistema ezartzea. Horretarako, beharrezkoa da datu pertsonalak anonimoak izatea, hau da, pertsona identifikatzea ahalbidetzen duten datu pertsonalak ezabatzea. Sistema horrek aukera eman behar du intzidentzia nolakoa den jakiteko, profilak marrazteko eta zehaztutako profilen arabera hobetzeko ekintzak ezartzeko. Datu horiek Berdintasun Zerbitzuari emango zaizkio, estatistiken arloan indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.

- Hiruhilekoko datuak Koordinazio Teknikoko Mahaiko erakundeekin partekatzea, horretarako sortutako informazio-sistema bateratuaren bidez.

# I. eranskina. Erakundeen erantzun publikoaren prozedura

Erakundeen komunikazioaren bidez, tokiko administrazioek elkarbizitzarako balioak eta irizpideak helaraz ditzakete, berdintasunean, pertsona guztien giza eskubideekiko errespetuan eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arbuioaren kulturan oinarritutako identitatea eraikitzeko.

Erakundeen arteko komunikazioa lagungarria izan daiteke indarkeria horien izaera estrukturala eta hedapena zabaltzeko eta gizartea sentsibilizatzeko, baita estereotipo eta aurreiritziak desagerraraztearen inguruan, buloen eta berri faltsuen inguruan eta biktimak errespetatuko dituen eta emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak onartuko ez dituen iruditegi soziala eraikitzearen inguruan ere. Eta alde horretatik, erasoek sortzen duten haserrea edo mina modu eraikitzailean bideratzea sustatzen du, biktima babestu eta laguntzen duen komunitatearen parte izatea, giza eskubideen errespetuari eta pertsona guztion duintasunari dagokionez, arbuio kolektibo eta bateratuaren ekimenetan parte hartzea.

Uribe Kostako mankomunitateko udalerrietako populazioaren bolumenak batzuetan zaildu egiten du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetan sartuta dauden pertsonen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna mantentzea.  Tokiko administrazioetako politikariak bereziki kezkatzen dituen alderdia da hori. Horregatik, erantzun instituzionalaren lan nagusietako bat izango da errespetua eta zurrumurru eta buloei hauspo gehiago ez emateko eskatzea.

**Prozeduraren helburuak**

- ✓ Erakundeen partetik **erantzun osoa** eta koherentea artikulatzea, eta argi adieraztea haien jarrera eta haien kideena zein den.
- ✓ Publikoki adieraztea emakumeen aurkako eta biktimari laguntzen dioten pertsonen aurkako indarkeria mota guztien **arbuioa**.
- ✓ **Sentsibilizazioari** laguntzea eta **indarkeria baztertzen duen kultura indartzea.**
- ✓ Indarkeria matxistaren inguruan ezagutza handiagoa izatea, komunikabideetan biktima berriro biktimizatzen ez duen **tratamendua** emanez, biktimari errua egotzi gabe eta erantzukizun guztia erasoa egin duen pertsonarengan jarriz.

**Erakundeen erantzun publikoaren oinarriak:**

**Biktimari lehentasunezko arreta ematea:** erasoren bat ikusi eta/edo jakinez gero, biktimari arreta eskaintzea izan beharko da lehentasuna. Ondo dagoela eta arreta egokia jaso duela ziurtatzea izango dira lehen jarduketak. Alderdi horrek beti izango du lehentasuna erantzun publikoan.

**Berriro biktimizatzea edo bigarren mailako biktimizazioa ekiditea:** indarkeria matxistaren egiturazko izaera dela eta, kasu askotan biktima zalantzan jartzen da edo bizitutako indarkeriaren erantzukizuna egozten zaio. Garrantzitsua da gogoan izatea eta nabarmentzea erantzukizuna indarkeria erabiltzen duenarena dela eta ez emakumeena, eta errua egozten dioten edo seinalatu edo estigmatizatu egiten duten mekanismoak martxan jartzea eragotzi behar da.

**Prebentzio-jarduketa:**  garrantzitsua da informazio, prestakuntza eta sentsibilizaziorako jarduketak egitea, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean tolerantziarik ezaren kontzientzia soziala sustatzeko helburuarekin. Prebentzioa kontzeptu zabala da eta hiru dimentsio ditu:

Lehen mailako prebentzioa edo orokorra: indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko egiturazko aldaketak (politikoak, sozialak eta kulturalak) lortzea dakar, esaterako, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean, egindako ekintzen eta jardueren bidez.

Bigarren mailako prebentzioa: indarkeria gertatu ondoren, prebentzioa ere bada indarkeria hautematea eta azkar geldiaraztea. Horrek herritar guztien sentsibilizazioa eta konpromisoa eskatzen du, eta, batez ere, administrazio publikoena.

Hirugarren mailako prebentzioa: abusuen berri eman eta salatu ondoren, berriro gerta ez daitezen prebenitzean datza. Erreparazio Printzipioarekin lotuta dago zuzenean; izan ere, “ez errepikatzeko” bermea funtsezko elementua da erreparazioan.

**Erasotzailearekiko arbuioa**: indarkeria matxista gauzatzen duen pertsonaren erantzukizuna da, eta funtsezkoa da erasoen eta erasotzailearen aurkako arbuio argia sustatzea, baina ez pertsonalizatzea edo norbaiten identitatea indibidualizatzea.

**Informazio fidagarria:** buloak, sentsazionalismoa eta alarma soziala ekidin behar dira, eta informazioa kontrastatzen duen jarrera arduratsuarekin ordezkatu.

**Azkar jardutea:** Indarkeria matxistaren erantzunak irmoa eta proportzionala izan behar du, bai proposatzen den jarduketa motari dagokionez, bai denborari dagokionez. Azkar egiteak ez du esan nahi ondo kontrastatuta eta baloratuta ez dauden erantzunak ematea, inpaktuari eta eraginkortasunari dagokienez. Azkar jarduteak esan nahi du lehentasuna biktimaren onura izango dela eta ez die inolaz ere eragin behar esku hartze egokia izateko beharrezko denborei.

**Akusazio partikularra:** Indarkeriaren emaitza heriotza bada, udala akusazio partikular gisa joango da epaitegira.

## Noiz aktibatzen da prozedura?

**Garrantzi berezikotzat** jotzen diren indarkeria matxista **kasu jakin batzuetan** aktibatuko da erantzun publikoa emateko prozedura, eta elementu hauek izango dira kontuan:

a. Mankomunitatean gertatu denean edo mankomunitatetik kanpo gertatu bada, baina erasotzailea edo biktima bertan bizi badira.

b. Egoera hauek jazotzen badira: hilketa, sexu-erasoa eta erasoa larriago bihurtzen duten zirkunstantziak, hala nola bahiketa, taldean egindako erasoa, biktimak konortea galtzeko elementuak erabili izana edo biktimak konorterik ez izatea aprobetxatu izana erasotzeko, erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun-zerbitzuetako langileak edo udalerriko eragile esanguratsuak izatea, edo erasotzaileak berak behin eta berriro eraso egin izana, biktimaren bikotea edo bikote-ohia izan ala ez izan, leku berean eta hemen kontuan hartzen ez den edozein zirkunstantziatan, baldin eta zirkunstantzia horiek larritzat har badaitezke etorkizuneko eraso batean.

Gainera, aurreko paragrafoetan ageri ez diren kasuetan, baina iritzi publikoarengana heltzen diren kasuetan eta Mankomunitateko udalerrietako biztanleen artean nahasmena, buloak eta/edo kezka berezia sortzen dituzten kasuetan, prozedura aktibatzeko aukera baloratuko da.

## Prozedura

Alkateak edo zinegotziek aurretik aipatutako ezaugarriak dituen eraso matxista baten berri jasotzean, bitartekoa edozein dela ere, Erantzun Publikoa Koordinatzeko Batzordearen premiazko bilera deituko du, aurrez aurre edo telematikoki.




- **Lehentasuna**: emakumea babestea eta bere eskubideak bermatzea. Horretarako Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie. Gizarte Zerbitzuak biktimarekin kontaktuan egon ahal izan diren eragile horiekin jarriko dira harremanetan, bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko. Gero, egokia iruditzen bazaie, biktimarekin berarekin jarriko dira harremanetan (aurretik ez bazeuden) berari eta bere inguruneari arretarako eta babeserako zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa emateko. Jarduteko eta Koordinaziorako Protokoloa aktibatu da.
- **Udalerriaren eta mankomunitatearen koordinazioa:** erasoa izan den lurraldeko udal-agintariak koordinatu egingo dira mankomunitateko presidentearekin edo zinegotzi-ordezkariarekin mankomunitatearen babeserako eta hedapenerako ekintzen inguruan hitz egiteko, adosteko eta koordinatzeko. Horretarako, kontuan izango da ekintzen lidergoa udalerriari dagokiola eta mankomunitateak, babestu, indartu eta horiekin bat egingo duela.

Egin beharreko urratsak:

**Informazioa bildu**

- Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuaren arduradunak telefono bidezko harremana eta/edo elektronikoa ezarriko du beste eragileekin (Ertzaintza, Osakidetza, Foru Aldundia...) erasoaren inguruko informazioa biltzeko, baina prozedura honetarako behar beharrezkoa dena soilik, Datuen Babeserako Legearen barruan. Berdintasun Zerbitzuko arduraduna ez badago, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako Arduraduna izango da beste eragileekin harremanetan jarriko dena.

- Gertakariaren berri izan ostean, ahalik eta azkarren bilduko da **Erantzun Publikorako Koordinazio Batzordearekin.**

- Bilera telefono bidez edo aurrez aurre izan daiteke (uneko egoeraren arabera) eta alde bakoitzak gertakariaren inguruan duen informazioa emango du, datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen araudiaren arabera eta Prozedura Kriminalaren Legearen arabera, jazoeren ikuspegi osatuagoa izateko.

- Une horretara arte jaso ahal izan den informazio guztiarekin, batzordeak baloratuko du ea prozedurarekin jarraitu ala ez, eta udaleko autoritateak Mankomunitatekoekin jarriko dira harremanetan egoeraren eta hartzeko balizko neurrien berri emateko.

- Prozedurarekin jarraitzekotan, **ekintza hauek** egin beharko dira:




**Balizko agertokiak eta indarkeriaren gertakari esanguratsu baten aurrean erantzuteko moduak:**

**Biktima ez dago ados ekitaldi publikoa egitearekin:**

- Emakumeari azalduko zaio komunikatu bat egingo dela eta testua orokorra eta anonimoa izango dela, eta ez dela jazoeraren inguruko datu zehatzik emango.
- Indarkeria matxistaren aurkako komunikatua egingo da eta udalerriko emakume guztiei indarkeria-kasuen aurrean laguntza eskatzeko dauden moduen berri emango zaie.
- Komunikatuan ez zaio biktimari eta bere inguruneari erreferentzia zuzenik egingo. Komunikatua biktimari erakutsi ahal izango zaio, emakumeak testuan aldaketak egin nahi baditu, eta bere ekarpenak amaierako testuan sartuko dira.

**Biktimak zalantzak ditu edo ez da lortzen erantzun publikoaren gaiaren inguruan berarekin hitz egitea**

Garrantzitsua da ez ahaztea erantzun publikoaren premia beti ez dela bat etorriko biktimaren eta/edo familiaren beharrekin eta erreakzionatzeko gaitasunarekin. Ezin zaie erakundeen erantzun publikoaren inguruko erabakien erantzule egin.

Lehentasuna arreta eta babesa eskaintzea izango da, eta indarkeria matxistaren arbuioak pertsonaren anonimotasuna babestu eta bere denborak errespetatu beharko ditu. Hortaz, errespetuzko komunikazioa izango da uneoro, baina erantzun publikoaren erabakia udaleko autoritateena izango da.

Horrek ez du alde batera utzi behar zer garrantzitsua den biktimak eta familiak bere ingurunearen, erakundeen eta udalerriko politikarien babesa sentitzea.

**Biktima ados dago ekitaldi publikoa egitearekin:**

- Erantzun Publikoa Koordinatzeko Batzordeak komunikatua egingo du eta indarkeria arbuiatzeko ekitaldi publikoaren proposamena zehaztuko da. Biktima ados egon arren, ez da datu pertsonalik emango (izen-abizenak, biktimaren helbidea...), ezta erantzun publikoa emateko ezinbestekoak ez diren erasoaren gaineko xehetasunik ere.

- Ordezkarien Batzordea deituko da jakinarazpena eta elkarretaratzearen deialdia onar ditzaten, betiere biktimak edo bere familiak berariazko baimena eman badute.

- Instantzia publikoek kasuaren inguruko informazioak kontratatu ondoren, Berdintasun teknikariak kasuaren berri emango die kolektibo feministei eta erantzun publikoaren ekintzetarako adierazgarriak diren erakundeei eta eragileei. Ahal den heinean, ekintza koordinatuak egiteko aukera eskainiko zaie. Hori hala bada, jakinarazpenean adieraziko da mugimendu feministak edo gizarte zibilak indarkeria arbuiatzeko egingo dituen beste ekintzetarako babesa.

- Tokiko hedabideen eta bandoaren bidez zabalduko da adierazpena, eta Udalaren eta Mankomunitatearen webgunean eta sare sozialetan ere ikusgai egongo da.

- Eraso matxistaren ondorioz biktima **eraila izan bada**, erasoa egin eta hurrengo hilabeteko udal-bilkuretan minutu bateko isilunea egingo dute biktimaren alde.

**GAITZESPEN ELKARRETARATZEA**

- Erasoa gertatu den tokiko udaleko politikariak eta teknikariak udalerri bakoitzean egokien deritzen tokian eta ordutegian elkartuko dira. Mankomunitateko beste udalerriek eta bertako autoritateek babestu egingo dute.

## Neska gazteen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako prentsa-oharraren eredua

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak agerian uzten du erakundeek eta Euskadiko gizarte osoak gure udalerrietan berdintasuna gauzatzeko dugun erantzukizuna. Alde horretatik, gure sentsibilizaziorako eta prebentziorako ekintzak indartzen jarraitu behar dugu etorkizuneko gure ordezkariekin, hau da, gure herritarrik gazteenekin.

Gizarteak harriduraz hartzen ditu indarkeria sexistaren kasuak, batez ere biktimak neska gazteak badira, eta ezin da azaldu zer ari garen gaizki egiten gazteen arteko harremanetan oraindik ere menderakuntza matxistaren patroiak izateko.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da ikuspegia zabaltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi orokorra izatea, tratu txar fisikotik eta erailketa matxistatik harago doazen elementuak kontuan izateko, eta eraso matxistak gizarteko alor guztietan dauden desberdintasunen adierazpen basatiak direla ulertzea. Hortaz, ezinbestekoa da ulertzea emakumeen aurkako indarkeriaren kontra ezin dela borrokatu maskulinitatearen eta feminitatearen ereduak sakon eraldatu gabe, ezta emakumeen eta gizonen artean harreman afektiboak eta sexualak eraikitzen diren modua aldatu gabe ere.

Indarkeria matxistaren aurrean bi jarrera bakarrik daude: konplize izatea edo erabat arbuiatzea.

Hala, XXXX udalak erabateko arbuioa adierazten du gure udalerrian xxxx -(e)an izandako indarkeria matxistaren aurrean. Eta elkarretaratze publikoa eta adierazpenaren irakurketa egingo dugu XXXXX egunean eta XXXX orduan, udaletxeko plazan, eta herritar guztiak gonbidatzen zaituztegu bertan parte hartzera.

## Emakumeen aurkako sexu-eraso edo eraso fisikoari erantzuteko erakundeen adierazpenaren eredua

Ordezkarien Batzordeak /Udalbatzak adierazpen instituzional hau onartu du izandako sexu-erasoaren edo eraso matxistaren harira, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen guztiak eta XXXXXXXXXX-n gertatutakoa salatzeko.

1. XXXXXX-ko Udalak erabat gaitzetsi nahi du gertatutakoa eta haserre handia adierazi nahi du XXXXXXXXX -(e)an gertatutako eraso matxistarengatik. Delitu horrek/horiek osotasun fisikoari eta moralari egiten diote eraso, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da/dira. Udal honek gertakari horien arbuioa eta ulertezintasuna adierazi nahi ditu eta emakumeari/emakumeei babes osoa helarazi.

2. XXXX-ko Udalak babesa eta elkartasuna adierazi nahi dio eraso deitoragarri horren biktimari, bai eta senideei eta hurbileko inguruneari ere.

3. Emakumeek pairatzen dituzten eraso guztiak SALATU ETA IRMO ARBUIATZEN ditu, eta herritarrei gogorarazi nahi die eraso-mota horiek indarkeria matxistaren eta oraindik gure gizartean errotua dagoen genero-desberdintasunaren adierazpenik arbuiagarrienak direla, eta udala horien aurka dago erabat. Beharrezkoa da herritarrekin eta hiriko gizarte-eragileekin lanean jarraitzea balioetan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean hezteko. Halaber, beharrezkoa da egunez egun jardun behar dela halako jokabideak sorrarazten dituzten faktoreen aurrean.

4. Gizarte bidezkoagoa eta parekideagoa lortzeko duen konpromisoa berresten du eta bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legedia aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeria guztien aurkako udal-politika aktiboak, osoak eta koordinatuak garatzen ditu.

5. Eta herritar guztiei eskatzen dien eraso sexisten eta/edo sexu-erasoen konplize ez izateko eta, hortaz, tolerantziarik eta inpunitaterik ez izateko. Guztiok izan behar dugu jarrera aktiboa emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenen aurrean, eta salatu, ez onartu, isilik ez geratu eta biktimei gure babesa adierazi. Azken finean, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa izan behar dugu eraso matxisten aurrean.

A) Udalak herritar guztiei dei egiten die X egunean XXX- (e)(t)an XXXXX -(a)n egingo den elkarretaratze isilera joateko.

B) Udalak eraso horien arbuioa adierazteko antolatutako ekitaldietan parte hartuko du eta Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Zerbitzua biktimaren eskura uzten ditu, arreta osoa eta espezializatua eskaintzeko.

C) Hala, XXXX udalak erabateko arbuioa adierazten du gure udalerrian xxxx -(e)an izandako indarkeria matxistaren aurrean. Eta elkarretaratze publikoa eta adierazpenaren irakurketa egingo dugu XXXXX egunean XXXX orduan, udaletxeko plazan, eta herritar guztiak gonbidatzen zaituztegu bertan parte hartzera.

# II. eranskina: ofiziozko-epaitegira igortzeko eredua (osasun-arloa)

**EPAITEGIRA IGORTZEKO OFIZIO EREDUA (OSASUN ARLOA)**

......................................................................................., jauna/andrea, ............................................................. elkargoko medikua, ............................... zenbakiduna eta ........................................................................... -(e)n jarduten duena (lantokia eta zentroa).

**AZALTZEN DIZUT**: gaur, ......................... -e(t)an, ........................ -(a)n (kontsultategia, osasun-zentroa, ospitalea, zentroaren izena eta lantokia, herria, kalea) ............................................................................... jaun/andrea artatu duela, ............. urtekoa; bizilekua ..................................................................................... (kalea eta zenbakia; posta kodea eta udalerria ................................................................; probintzia ..............................................; telefonoa ......................................; eta ustezko tratu txarren txosten medikoa **bidaltzen** dizut.

**Eguna eta ordutegia**

**GUARDIAKO INSTRUKZIO EPAITEGIA**

# III. eranskina: lesioen mediku-partearen eredua

**LESIOEN MEDIKU PARTEAREN EREDUA**

1) **BIKTIMAREN FILIAZIO DATUAK**

Izen-abizenak: ......................................................

Sexua: emakumea  gizona

Jaioteguna: ………. /……….. / ………….

Egoera zibila: ................................................................

Helbidea:[9]: .................................................................

Harremanetarako telefonoa[10]: ..................................................

2) **LESIOAK ERAGIN DITUEN PERTSONA** (biktimaren aitorpenaren arabera)
.........................................................................................................

3) **BERTARATZEA ERAGIN DUTEN GERTAKARIAK AZALTZEA** (adierazi eguna, ordua, eta erasoaren lekua, biktimaren aitorpenaren arabera, bai eta tratu txar fisiko, psikologiko edo bestelakoak ere)
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
........................................................................................................................

4) **INTERESEKOAK IZAN DAITEZKEEN AURREKARI PENALAK** (lesioei dagokienez)
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.........................................................................................................................................................
.......

9 Biktimak etxez aldatu nahi badu, etxebizitza berria ez da agertuko eta egungoa adierazi beharko da. Halaber, agertzen den etxebizitzak ez du zertan biktimarena izan behar, egon daitekeen beste edozein izan daiteke.

10 Telefonoak ez du zertan biktimarena izan behar, biktimarekin kontaktatzeko balio duen beste edozein izan daiteke.

5) **MIAKETA FISIKOA** (lesioen deskribapena, -forma, tamaina edo neurriak, kokapena eta kolorearen xehetasunak; komeni da biktimaren baimenarekin argazkiak ateratzea-, eta ez ahaztu lesioen eguna)...........................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................
